

POLLI TA PELLO, BI EUSKALDUN BIKAIN
 DA ZINTZOEN KONDAIRA, LERCHUNDI TA BAZTARRI-
 KA-TAR JUAN MANUEL, *Kalaszanz-darretako aba jaunak*
idatzia.

(Azkoitia-ko euskal jai-aldietan sarituba.)

Kondaira asi baño lenago itz batzuek irakurleentzat.

Onezkero, nai baño urte geyago igaro dira nozki, esatera nuan gertaera aitu nunetik; bañan egiazkoa da; aspalditik nere erritar guztiyairi kondaira au esateko asmoz betea nebillen, eta egin bearrez beteta arkitu banaiz eta egizko kondaira nai nun bezela oraindaño adierazi ez badet, enazazute alpertzat artu: bakuitzak alditun garayetan gauzak egiten baiditu eta eskerrak alegin guztiyak bere lanean ipiñi ezkeroz.

Nik beñepen lan ontan naiko alegiñak ipiñi ditut: ala ere, berez arrigarriya dan kondaira, gaizki dirudin ipui bat atera lezaiket, edo eziñ ondo adierazi, edo euzkera txarrez ezarri, bai nere adimen aulak eziñ geyago al, bai ta ere aspaldi gogoan neuzkan esaerak zerbait astu zaizkidalako. Jaunak daki zergatik izango ote dan.

Ala ere, orain zuei, euskaldun irakurleak, esatera nuan kondaira, ontzat, egiazkoa danez, artu dezazute: bertan esagutuko dituzuten notiñ-etatik, batzuek nerekin egon izan dira ta euskaldun txit-zintzo ta bikañak ziran, eta ayek egia esaten zidatela badakit; geyenak beren esanez dakizkit; bakuitza zan bezela adieraziko dizutet; ona bazan ongi, gaiztoa izan bazan gaizki: oyen arrean zein onak eta zein gaiztoak izan diran geroseago jakingo dezute eta ori jakin ezkeronak bezela zuek ere izateko asmoak biyotz barruan oartzen badituzute, ongi; biyotz onekoak zeratela adieraziko dezute.

Ortan nai nuke zuek zeon adimen, al da naimen guztia jartzea;

orrela, nitzaz aztuta, etzerate ondo edo gaizki ezartzen dedan edo ez-etan ibilliko, ez bada, kondairako notiñak nolakoak izan eta nolakoak zuek ere izan beartzeraten-etan.

Kondaira ontako notiñ batzuek etzuten euzkeraz itzegiten; oyen esaerak gure izkera maitagarrira itzuli ditut bana-banaka ta zintzo-zintzo: au bakarrik da nik kondaira ontan jarri dedan lana: ondo atera zaidala esaten badidazute, poztuko naiz; bañan idaztitxo au irakurrita, kiñuka asi ta isiltzea obetzat badaukazute, eskuban daukadan esartxotxa puzkatu eta geyago ez dedala ezertxo ere euzkeraz ezarriko, benetan eskeintzen dizutet.

Agur, da ondo bizi, nere irakurle laztanak.

Zuen erritar eta laguntzat eskeintzen dan

LERTXUNDI

I

Alkartze arrigarriya.

Iya berrogei urte gutxi gora bera igaroak izango dira, Mendoza deritzan Arjentiñako uri pollit batean, gertaera erruki ta izugarrizko bat gertatu zanetik.

Negu erdiyan egon arren, alako berua ta gutxitan oartu leiken ikaragarrizko gertaera ikusi zuten, an, erri artan bizi ziranak.

Ango zero urdiña bat-batean illundu zan: ubelezko margoz beteak zeuden odehyak; ez bañan goi-goyan, ez bada oso bean: zeruba jetxi, aizea bildu ta nai ta nai ez gizon da abereak ito bear zituztela zirudin. Piztik etxetara, gizonak karriketara erdi txoraturik zijuazen: abereak, ikulluetan lotuta zeudenak, irrintzi, ojuz ta marruka asi ziran; darka guztik, izerdiz beteak eta iya txorabiatubak geyenak.

¿Zer-tzan? Azpalditik an bizi ziran batzuek bai igartzentzuten, bañan ¿zeñek zirudiyon gertaera esateko ausardiya euki lezaken? «Bildurrez dagona etzazu geyago izutu» ziyon bakuitzak, eta «¿nork daki gañera iduritzentzaidanez gertatuko dan gauza?»

Ta guztiyak isillik, alkar begiraka, alde batetik bestera zebiltzan arraztetik gaberaño, afaltzeko gogo ta loalerik gabe: gabaldiya egualdiyaren eran zetorren, eta gabaz egunez bezin larritasunez beteak egon bearko zutelakoan, geyenak etxeratu ziran.

Ontan turmoi antzeko abarrotz batzuek aitu ziran; etzan tximistik

ikusten, ala ere turmoyak bata bestea baño bertago aitzentziran: eta mendik eta lurpeko arkaitzak, alkar joaz puzkatu naye zebiltzala zidurin..... «¡lur ikara! ¡lur ikara!» alde guztietatik ojuka etxetatik atera ziran izututa notiñak; zeñ erdi jantzita, zeñ besoetan aurrak zeramazkila: ura ojuka, au isillik eta dardarka ta geyenak zalapartaka, nora jua jakin gabe: etxeak zearka mugitzen ási ziran; beren ormetako arrik kris-kras-ka puzkatzen, argik itzali, etxe batzuek urratu, besteak sutu ta asko notiñen gañera eroriyaz ondutzen ari ziran..... ¡Ura bai zala larritasuna!

«¡Ene Jauna, gutzaz erruki zaitel!» ziyoten batzuek: «¡neregana atozte!» besteak; bañan guztik geldi edo azkar, altzuten bezela, karrikatik karrikara erriko seyetara (1) zijuazen; erortzen-t-ziran etxeak purrukatu etzitzaten urruti utzi arte.

Ayetan zeudela oraindik geyago bildurtu bear izantziran guztik: lurra, itxasoko ur asarretubak bezela, mugitzen ari ta ari zebillen, etxeak zeazka batzuek ziduriten, egoa sutuba, lañuak gorri beltz zeuden eta azkenerako euri lanbro otz bat erantzita zeudenak bustiyaz erortzen asi zan. Ezin txutik egonez, eskuz esku alkar artuta, eriyotza igarriyaz eta lurrak ireztuko (2) ote zitun bildurrez, Jaunari otoitz egiñik gelditu ziran.

¿Ze garay era ontan igaro zitzayen? Etziran berak oartu; geroseago iru edo lau minutu barru ala egontzirala esan omen ziyen, bañan geyago lur-ikarak iraundu zulakoan, etzuten gisaiso ayek olakorik sinistu.

Lurra geldi jarri zanean, lasaitu ziran pizkabatez: beren guraso edo semeak nun egongo ziran jakin naye banakatuta alderatu ziran batzuek; besteak, iñor gabe bizi ziranak, bañan ainbesteko ondapenez errukituta zeudenak, eri ta gaiso billa juateko asmoan alkartu ziran eta lan artan gogoz ta biyotzez alegiñak ipiñi zituzten.

Errukitzu oyen artean zebillen gizon galant eta eder bat, ez egoki jantziya, bañan garbi ta txukun zidurina: indartzua zan, azkar ta bizkorra; bere lagunak, au esagutuaz, laster artu zuten burutzat eta onen mendean izugarrizko gauzak egintzitzuzten.

Karrasi bat aitzen-t-zutenerako, deadarka zeudengana jua da atea bultzaka bota, suba bazekusten itzali, ormak, ala bear bazan, lurre-ratu, ta andre gaisoak eta ume errukigarriyak besoetan artuaz, eriyak

(1) *Seya=plaza.*

(2) *Ireztu=tragar.*

sendatu, larri zeudenak laztandu, illak lurpetu eta biziya alderatuaz, gau negargarri ura guztiz igaro zitzayen. ¡Ayen biyotz on da maitezuk, ayen kemen da indar altzuak eta ayen buru zebillenaren maite-tasun ausar da gartzuba!

Jan gabe, loalez ta izerdiz beteta arren, beti arin, bizkor ta indartzu zebillen; mentzu ta illun, lanean ari zan artean; pozik, infortxo eriyotzaren atzaparretatik alderatzen zunean. «¡Aurrera, mutillak!» ziyen lagunairi; «Gisaisoak gure aldekoak dira eta ayen alde egiten deguna, zerutik begiraka daukagun Jaungoikoak ikusi ta sarituko digu!»

Karrika zabal batera iritxi ziran gure ongille langilleak eta an begiyetara agertu zitzayen ikusgayak, beren biyotza illundu bear izantziyen.

Etxe eder ta aundi bat su ta gar zegon: beko oyal saltegiya (1) erretzen asi eta oyal eyen ke ta kiratzaz nazka ta itotzentzula; ezin betik gora, ez eta goitik bera jua leikela, barrenen bizi ziran alde zerbait egitea zail samar zegon: goitik, lenbiziko bizitzako leyotik gizon batek ojuka laguntza eskatzen-tzun; eta besterik ezin bazan, lokarri lodi bat botatzeko, an zeukan eri bat jetxi zezan eska zebillen: au entzunaz alderatu zan pizka bat gure gizon galanta ra andik ergai (2) batera, ate aundi bat bizkarrean eta ertzetan kakoak zeuzkan lokarri bat eskuan zekarzkila etorri zan da leyocean eta su-garra agiri zan tokiyan atea txutik jarri, kakoa leyora bota eta mutil koskor bat bezin arin igotzen asi zan, kez da suz itotzeko bildurrik gabe. Ezkutatu bezin laster berriz agertu zan, beste gizonak besoetan maindirez bilduta zeukan eri bat besapean artu zun eta goikoari «zu ere lenbailen atoz» esanez jetxi zan, kontuz bañan azkar.

Garaya zan: goiko gizona jetxitzekoan, leyoan ere su-garrak agertu ziran, beko atea ere ordurako erretzen asiya zan: pitin bat itxoin ezkeru irurak il bear izango ziran.

Etzekin gure gizon galantak zein zeramakin da nora zijuan: besteak «nere atzetik atoz» esantziyon eta alase zerraikiyon. Atari eder batean arkitu ziran biyak, eriya besoetan zeramatala: ango argiz, lagunduta zijuan gizonak gure galantaren arpegiya ikusi zun da beraren larritasun da dardarra oartuaz itzegintziyon esanaz:

—«Nere adizkide maitea, eri onek baño bertago eriyotza dauka zula dirudi.»

(1) *Saltegiya=tienda.*

(2) *Ergai=momento.*

Musu gorritu zan gure galanta, miñen bat barrun bazeukan bezela zerbait makurtu zan, bañan berealasen zuzenduta apal da mentzu bes-teari erantzuntziyon.

—Bai, zerbait txorabiatuba oartu naiz; bañan juantzait eta orain ez daukat ezer: iyo gaitetz eta gaiso au, al bada, sendatu dezagun.

Ta esan da egin; biyak iyo ziran, gaisoa oi bigun da eder batean jarri zuten; etorri ziran emazte ta alabak: neskame bi apaiz ta sendagille billa bialdu zituzten eta alegiñak egiñaz eriyaren alde lan egiten asi ziran.

Andik pizka batera, gaisoak begiyak iriki zitun: doailariyari begiratu ziyon eta eskerrak eman da nori zemazkiyon jakin nayez, estu estu itzegiñez galdetu ziyon:

—¿Zeintzera, nere doailari maitagarriya?

—Etzazu, arren, jakin izan nai, Prasku Jauna: nere aidekoak laguntzera gau ikaragarri ontan Jaungoikoak bialdu nau; al nuna egin det eta kito.

—Zuk esagutzen nazu bada, nere izena dakizun ezkeru.

—Bai, bañan ohea izango da zuk nerea ez esagutzea.

—Ez, alajaña: Jaungoikoarengana laster juan bearrean nago, ta Beraren izenean zurea esan dezaidazula eskatzen dizut.

—Ala bada, esango dizut: Polli naiz, «Polli aundi» zurekin nebi-llenean deitzen zidazuna.

—¡Polli, Polli! (dardarka ziyon eriyak): bai, gogoratzen-t-zaitut.... gaitz asko egin nizkizun.... barka dezai....da....zu.

Eriya ezin asnas arturik zegola Pollik ikusi zunean, arren esku otza beren tartean artuta maitetzu estutuaz erantzuntziyon.

—Jaungoikoak aspaldi barkatu nizula badaki, Berak nere barka-pena osatu dezala.

Prasku, zerbait lasaigo, kiñuka Pello suyari deituaz ta arren esku-ba bere eskerrez zeukala, ezin itzegin arren doi-doi ta aldizka esantziyon.

—Pello, nere sui maitea: gure diru ta aberastasunetatik geyenak gizon maitagarri onenak dira: emaizkiyozu, Jainkoak ala nai du ta.

Eta au esanez, sotinka asi, ta apaiz, sendagille ta etxeakoak zetozela il da gelditu zan.

II

Bi euskaldun, dirutako kezketan ere, ondo alkartzen dira.

Prasku Jaunaren illetak, aberatz batenak bezela, ederrak izantzi-ran. Esku piltzallekoa izan arren, etzan bear bazan ezergabeai diru ematera ukatzen: da diruba zabaltzen dunak, ugari badama geyago, adizkide ta lagunak askotzen ditula, gauz jakiña da.

Orregatik eta egun ayetan Mendozatarrak egin bear gutxi zeukate-lako, Prasku-ren illetetan naiko esagun bildu ziran, izugarri argi piztu, againgai erakutzi eta oraindik obetogo dirurina, Prasku zanaren ongai asko ta gaiztakeri gutxi zabaldu ta jakin ziran.

Etzitzayon Polliri bere esagunaren illetara juatea ondo iduritu; atzedea bearra zeukan da gañera len lagun da esagun euki zitun adiz-kideak berriz ikustea etzegokiyon ondo: beartzua bai zidurin bada ta lagunetatik batzuek, aberatza izantzan bitartean bakarrik laguntzat nai izantzutela adierazi ziyoten.

Etxean geldi zegon nai ta ez: Pellok ori maitetzu eskatu ziyon da arri itxoiñez bere gel, urte asko ziralarik, bizi izantzan gelan bertan, aspaldiko gertaerak buruz irakurtzen ari zan.

Goizeko amaika-t-erdik izango ziran Pello etxeratu ta Pollirengan-natu zanerako: emaztea ta alabak nola zeuden ikusi ta gero, arrekin nai zun bezela itzegiteko asmoaz, arren gelara eldu zan.

—Egun txarra daramazu, Polli; lengo egunetan bezela biyotz sa-mur, begi busti ta kopet illun besterik etxe ontan ez dago ta.

—Gertaera txarrak zerbait nere biyotza larritzen dute, Pello: neke ta naigabeak zer diran badakit; bañan iñor emen errukigarri balego, zu izango ziñake nozki.

—Enuke ukatuko, adizkidea, eta ez det au etxe sutuarengatik esa-ten, ez ta lur-ikarak galdu erazi dizkidan diruengatik ere: oyek berriz egin edo irabazi litezke; bañan nere aitagarreba, ain ona ta zintzoa zana..... ¡ene! ura galdu det eta ez dakit zerekin ordaindu nezaken.

—Egiya diyozu; «junak jun» maiz esaten da; bañan «miñ barrun» ere esan genezake: ez dira eskuk odolik gabe moztutzen, da biyo-tzeko kutunak miñik gabe ere ez.

—Ta nere emaztea berriz, aitarene eriyotzez gaisotuta, alabak ne-garrez: ez da au neretzat, Polli; olako naigabeak ezin eramantik nabill.

—Jaunak lagun dezaizula, Pello; era ontako naigabetan Arren laguntzak, gizonenak baño geyago laztantzen dute; ta ala dala, Jaunarengana biurtu zaite; Berak zure biyotza sendatuko du, ta zuk gero emazte ta alabenak laztanduko dituzu: zuaz, Pello, ayengana, zure bearra daukate eta ez ditzazu atzedenic gabe utzi.

—Biguñegiya daukat biyotza ayen ojuk entzuteko; ezin ditut negarrez daudela ikusi, eta egin bear aundirik ez badezu, aurrerontz nerekin bizi zaitezela eskatu nai dizut, ayek sendatu ta zerbait alaitu arte, ta gañera len esan nizunez, aitagiarrebaren naimena egiñez, zuri beartzaizuna eman arte.

—Begira, Pello, iru edo lau bider orretzaz ez itzegiteko eskatu dizut eta ez dagokiyo gizon bati beti eskean egotea: maite banazu, utzi nazazu: nitzaz bein edo bein gogoratzen bazera, Jaunari nitzaz ta nere amatzaz otoitz egin dezazu eta kito.

—Nik ere oraindik ama bizirik daukat eta arreatatik eta bear bada zureangatik zeintzeran, zer zor dizudan esan dezaidazun, berriz, nai badezu, belauniko eskatuko dizut.

—Ez, etzaitez nere aurrean belauniko jarri.

Pello belauniko ta Polli alde batetik bestera zebilela, ergai batzuek igaro ziran; bata otoitz egiten Jaungoikoaren aurrean balego bezela, bestea palmetituba, bere biyotzean zeuzkan asmoak usatu nai bazitun bezela, Polli lenbizi bereganatu zan, da Pello oraindik belau-niko zegola ikusirik, arregana juan, bizkarretan ikutu ta altxa erazirik esantziyon:

—Altxa zaite, Jaungoikoarengatik: menderatu nazu: neregatik ezin nezakena, nere eta zure amengatik esango dizut.

Ontan, jateko ordua zan da neskameak, nagusiya astuta zegola ikusirik, arregana juan da atean joaz deitu ta galdetu ziyon ¿noiz baskaldu naiko dezu, nagusi jauna?

Altxa zan Pello: ¡aurrera! neskameari oju egintziyon da etxeko andre ta alabak nola zeuden galdetu ta gero, zeuden gela artan bertan baskariya jartzeko agindu ziyon, biyak bakarrik otordu ta bazkalon doan egon nai zutela adieraziyaz.

Ta agindu bezela bazkariya atera ziyen neskameak; mayean eta neskamearen aurrean egun ayetako gertaerak batak besteari egiztazten (1) jarduntziran: beren tartean esan bear zutena iñortxok igar-

(1) Egiztatu= contar, referir,

tzea etzuten nai ta orregatik eta neskameak gero ezer esan etzezan, ondo zekiskiten berriyaz itzegiñez bazkari garaya igaro zuten.

Bazkaldu ta gero, neskamea ontzik kendu ta maya garbituta alde-ratu zanean, atea barrendik itxi zuten da bata bestearen aurrean eserita, Pellok len egindako galdera berrituaz, onela itzegiten asi zan:

—Jakin dezat nik, Polli, aitagearreba iltzanetik jakin nai nukena; arren azkenetako itz ta naimenak urduri (1) ta sutan naukate; arren itzetan gaidadin (2) bat izan beartzala igarri nun da ori ezagutu arte enaiz atzegiñez arkituko.

—Ala nai dezunez, zein naizen esango dizut: zu bezela euskal-erriko mendi alayetan jayua naiz, aitik enun ezagutu, bañan Jaunak ama zintzo ta maitetzu bat eman da oraindano gorde izan dit. ¡Arren lan da malkoak neri jaten emateko!

Beartzuba zan da batzuetan bere baratz txikiyan lan egiñez, bestetan ondo zeuden altzoko baserritan, bere biyotzeko seme kutunarentzat talo pizka bat eskatuaz azi niñun, neronek zerbait egiteko aiña indar artu arte.

Oraindik mutil koskor bat nitzan; da ala ere arren eramankizunak ezin ikusiyaz, morroitzat nunbait jarri nai nitzan, bañan etziran uzten berak: «ez, ez det nai nere semeagandik alderatu», ziyon beti: «Jau-nak senarra bereganatu ziran, da zu neregan utzi zaitunez, nik zu ondo zaintzea nai du nozki: nerekin bizi bear dezu, ona izantzaita ta Jaungoikoak lagunduko gaitu.»

Ezer, amaren naimena baizik, eziñ egiñez, arekin bizi ta lan egi-ten nun; bañan nere irabazi laburrak etziran gure bearrak askitzeko arterañokoak izaten, da beti beartzu ta makal gebiltzan biyok.

Emezortzi urte nitun, lan egiteko eran arkitzen nitzan eta nere ama maitea beti larri ta malkoak zerizkiyola eziñ ikusirik, biyotza puzkaturik arren bein batean esan niyon:

«Ezin det, ene amatxo, zu beti errukigarri ikustea eraman; ni indartzuba naiz, edozer gauz egiteko eran nago; zu ainbeste lanez al-perrrik galtzen zabiltz, ta ezin naiz zutzat geyago egin gabe bizi: nun-baitera juaten utzi zadazu, ta ondo ta atzeden bizitzeko aiña irabas-tean, berriz etxera etorriko naiz, zuri berriz esanez: Artu ditzazu, amatxo maitea. nere izerdiz zuretzat irabazi ditudan aberastasunak.

«Ene seme laztana, lur guztiko aberastasunak baño geyago maite zaitut, ta neregan zu eukiyaz ez aberatz baizik doaitzu naiz: negarrez

(1) *Urduri=violento.*

(2) *Gaidadea=misterio.*

batzuetan ikusten banazu zu oraindik doaitzuegoa izateagatik da; zuretzat nai nuke ludi ontako ontasun guztiya: ez baida neretzat, Jaungoikoaz bera, nere biyotzeko kutuna baño gauz laztanagorik.

—«Ori ondo dakit, ama, ta doaitzuegoa, uste det, zuretzat al dana beste aldetan irabaziyaz, izango naizela.»

—Ala bada, zuaz: zuazen tokin doaitzuba zerala esaidazu, ta emen bakarrik geldituko naiz: bañan aberatza baño ona nayago zaitut: gizon zintzo ta ongille baten semea ta Jaungoikoarentzat egiña zerala beti gogoan euki dezazu eta doaitzuba izango zera, ene semetxo maitea

Amaren baimenaz alai al izan nun lenena, bear nitun berrik artuaz, auzoko lagun batekin Ameriketara etorri nitzan: enun bidean amaren antza baizik ikusten: arren itzak eta esaera onak beti belarritan neuzkan eta beraren esanez izateko-asmoak egunero berrituaz, etxetik atera ezkeroztik sei illabete barru Buenos-Aires-era iritxi nitzan.

Altzan tokin gau ta egun lan egiñez batzuetan, eta saltegi aundi batean bestetan, nere indar ta izardik utziyaz zerbait irabazten nun, eta bear nuna bakarrik neretzat gordeta, beste guztiya nere amari illero bialduaz, ongi samar jarri nun, ondo ta eskertzu bizi zala jakinda pozik.

Bañan nere bizitza zuri egiztatuaz nekatuko zaitut nozki ta.....

—Ez, ez, nere bizitza adierazten didazula dirurit: jarrai zaitez berriez, atsegiñez beteta aitzentzaitut eta.

—Ala bada, nere gertaera txarrak itz laburretan esango dizkizut

Oyal saltegi batean, askotan lan ematen zidan nagusi txit on batek ta nere lanerako indar ta kemenak igarriyaz bere etxean morroitat artu izan niñun: gogoz arren gauzen zay jarri nitzan ta an bi urte barru lan egin nun : etxe artan ezagutu nun zure aitagarreba: biyok oso lagun egiñ giñan eta bata bestearentzat jayoak giñala zirurin: ura azkarra zan, ni motela; ura azari bat, ni arkume bat; arrek buruz nagusiyarentzan asko irabaztentzun, nik indarrez da ekiñaz asko laguntzen niyon, da biyok, nagusiyaren morroi onenak giñalako, berak asko maite giñun. Ordurako nagusiya gaiso samar zebillen, da iltzera zijuala ezagutuaz, semerik etzeukalako, gure eta gaisotegin alde diru geyenak jarrita artu-emanak utzi eta iltzan Jaunaren besoetan ona zalako, nere eta beste morroi guztiyen uztez beintzat.

Ontan Prasku ta ni, bi anai bezela alkartu ta emen Mendozan zerbait irabazi leikelakoan, Buenos Aires utzi ta onera etorri giñan; ura bere alaba Mirenekin, ni bakar bakarrik.

Asko irabazten gendun biyon artean: Praskuk bere izenean neke-

zari guztik zeramazkin, nik lan egiten nun bein etxeko saltegin eta bestean auzoko erriyetera oyal-ikusgayak eramanaz: naiko lan bage-neukan, bañan ordaintzat diru asko irabazten gendun da pozik lanean ari ta ari gebiltzan.

Bein batean, iru morroyekin oyalak erri txiki batzuetan saltzera nijuala, indiyoen maloi batekin arkitu giñan: badakizu nola ayek askotan lapurtzera mendiyetatik josten diran, da alako batean, etzin da lotan geundela, itxumustuan guregana etorri, gu esnatu baño len eskuz esku lotu ta beren ibar batera eraman giñuzten: ez dizkizut ango iru urte barru izan nitun neke ta naigabeak esango: azkenean al nun bezela igesi egin da berriz etxe ontara bertara eldu nitzan laztanduaz artuko niñutelako ustez..... bañan, sinista zaidazu, eniñuten ezagutu nai izan.

—¡Etzazu olakorik esan. Polli!

—Bai, bai, Pello: egiyaz ta biyotzeko miñez beterik esaten dizut, eniñuten ezagutu nai izan, ez Praskuk ta ez zure emazteak.

—¡Ze lotzagarriya dan au, Polli! Biyotza erdiratzen dit alako zitalkeri batek, ta nere aitagarrebik eta beñere sinistu nai enukena, nere emazteak olako gaiztakeri bat egitea.....! Egiyaz, Polli, orain nere aitagarrebaren azkeneko itzak zergatik esanak ziran badakizkit eta Jaungoikoaren aurrean esan da, zure galpenak ordainduko ditutela eskeintzen dizut.

—¡A, Polli, nik ordun euki nun lotza! Gezurtizat artu niñuten; nere adierazgaitzat paperak eskatu zizkidaten: ¿nola nai zuten iru urte indiyoen artean bizi, ayen igesi ibilli ta gero nerekin paperak ekartzea? Jaungoikoak daki iñoiz gezurrik esan ez detela, berak ere bazekiten eta ala ere ukatu niñuten!

Nere amaren berrik galdetu nizkiyeten; arrentzat, nere ama gaiso oraindik bizi, ote zan enekinarentzat, diru pizka bat eskatu niyen..... da utza, ni zein nitzan ere etzekitela erantzun-tzidaten.

—Asko da, Polli; zure orduko naigabeak oartzen dizut: barka zayezu nere emazte ta bere aita zanari; gu biyok ondo alkartuko gera ta anaitzai artu nai banazu, atoz nere besoetara, nik laztandu ta ordainduko zaitut.

Ta esan bezela, guri Polli ta Pello bi gizon bikain da galantak, negarrez bañan bi anai maitetzu baziran bezela, atzegin alkartuta luzaro egontziran.

¿Zertan gelditu ote ziran? Geroseago jakingo degu.

POLLI TA PELLO, BI EUSKALDUN BIKAIN
 DA ZINTZOEN KONDAIRA, LERCHUNDI TA B ZTARRI-
 KA-TAR JUAN MANUEL, *Kalasan-z-darretako aba jaunak*
idatzia.

(Jarraipena)

III

Emazteari ez badagokiyo, ezin du senarrak nai guztiya egin.

Bere lagun Polli utzita, jua-t-zan Pello bere emaztearengana: au, jekita gero, bere bi alabak besoetan artuta laztanduaz, umien biyotzetatik bildurra ta beren begiyetatik malkoak kentzen bere maitetasunez ari zan: nagusiya nun egon liteken neskameari galdetuaz, zeñekin zegon bazekin, da umeak poztutzen ari zan bitartean, zerbait, bere barru ta pozezkoa etzana, igartzen zitzayon: orregatik, umeak amari begiraka arren arpegiyan naigabien bar ikusten zutelako, etzeuden beste alditan beziñ atzezin; ama berriz, zerbait ayei gorde naye, txandaka maite ta asarre, umeak musuka batzuetan artuaz, kopetillun bestetan zirudila, zegin; eta bakarrik gelditzeko gogoz, umeak bialtzeko ait-zekien baten zai zegola zidurin.

Lašter aitzeki ura etorri zitzayon:

Pello sartu ezkeru, alabak banaka beso bakiutzean arturik, ayekin musuka asi zan: amak baño maitetsugo bereganatzen-t-zitun, bañan malkoak zerizkiyola ta itzezin gabe: «¿Zer dezu, aitatxo?» ziyoten alabak berak ere musuka aita laztanduaz. Ezin geyago bere miñak ezkutaturik. Pello, biyotz biguñekoa zanez, zotinka negarrez asi zan, da alabak utzi bear izan-t-zitun.

«Zuazte pizka batan, ziyen alabai amak, zuazte ta utzi gaitzazute: aitona zerura juantzaigulako, dago aitatxo negarrez: utzi zazute, negar egiñez biyotza lasaituko zayo ta.

Juantziran bi alabak; senar emazteak bata bestearen ondoan eserita arkitu ziran eta isillik luzaro egon da gero, emaztea itzegiten asi zan:

—Ikusgarriya zaude, Pello, umien aurrean mutil koskor bat bezela negarrez; gaisoak egun guztiyan negartsu egon dira, ta atzegin pizka bat eman nayez ari nitzanean, nere alegiñak alperrik galtzera zatozkit.

—¡Ze nai dezu, Miren! ondo dakizu gizonak ezin degula emakumeak bezela biyotza txurizkatu: poza datorkigunean alai ta naigabez, orain bezela, gaudenean negartsu gabiltz.

—¿Ez dakizu ordea, ene Pello, askotan gure iritzi, asmo ta biyotzigintzak bestien aurrean gordetzea ohea dala?

—Zer obegoa izango dan ezin nezaizuket esan; nere amak, biyotzean neukana adierazi bear nula esaten-t-zirala bakarrik dakit.

—Ene Pello, beti zure ama doaitsuz itzegiten ari zera: ¿ez al dezu beste emakumerik ezagutu?

—Zu bakarrik, Mirentxo, ta egiya esatekotan, etzera nere ama beziñ ona ta egiyazkoa.

—Ura ainbat bizitzen banaiz, ura beziñ ona ta maitetsuba arkituko nazu noski.

—Ez det uste: nere ama gazte gatzetanikan zintzoa zan, gerogotxit on da maitetsuba, ta beti egiya mingañez esaten duna da.

—¿Ordun gezurtizat naukazula esan nai didazu? Ondo dago, Pello. ¡Ene Jaungoikoa! ¿olako egunetan lur ikarez bildurtu, etxeak ondatuta bearrez, ta aita il da naigabez beterik nagola, laztandu bearrean gezurti bat naizela esatera zatozkit, Pello? ¿txoratu al t-zera?

—Ainbeste izugarritzko naigabe gogoratu dizkidazunez, nik ere nerez esango dizut ¿olako egunetan, zeru ta lurreko Egilleak ezerez batzuek gerala adirazten digunean, gure aita bezela il da gelditu giñezkenean, zure aitak gauz bat eriyotzako orduan, eta zuk bestea esatea ondo al dirudizu?

—¿Zer esan-t-zizun, bada, nere aitak?

—Adi zaidazu zintzo: jakingo dezu. Zure aita, bere etxea su ta gar zegola, bere oyetik atera zun gizon ongillea etxe ontara nerekiñ etorri zan; eta nerekiñ arren alde, txorabituta zegola, kordera etorri zediñ, alegiñak egin-t-zitun, da an zegon zure aitaren aldamenen: zure aitak, zein-t-zan galdetu ta gero ondo begiratuaz, bere ongille au len arren lagun izan-t-zan Polli zala ezagutu zun, ta damuz betea ta biyotza oraindik guztiz galduba etzeukalako, Polliri barkapena eskatu zion.

Pollik barkatu ziyonean, lasaigo deitu ta esan-t-zidan: «Pello, daukazun aberastasun geyenak lagun ongille onenak dira, ta berriz eman bear-t-zaizkiyo». Ori esan-t-zidan; nik, Pello naizenez eta eriyotzako orduan egiya esaten dala dakidalako, eta nere aitagiyarreba Jaunarengan ala juan-t-zedin, Polliri galpenak ordainduko nizkiyola eskeñi niyon: pakean ustez, il-t-zan..... ¡Jaunak bereganatu dezala!

Gero zuregana juan nitzaizun gauz oyetzaz itzegiteko asmoan; bañan zuk, beste aldi batean egin-t-zendun bezela, gizon ori, gau artan ikusi zendun Polli, ezagutzen etzendula erantzun-t-zidazun..... ¿Ori alda egiazkoa izatea? Orregatik, berriz da Jaungoikoaren izenean, eta zure ta nere alabenean galdetzen dizut: ¿Polli, zure aitaren laguna, zurekiñ etxe ontan bertan luzaro bizi izan-t-zana esagutzen al dezu?

—¡Etzera zu nere senar Pello, oraindaño aiñ apal da eztitzuba izan dana!

—Jaunaren ordez zure eginkizunen erabakillea naiz, Miren!

—Askoz aunditu zera; bañan nere barrungo asmo ta gogoak igarri ta asmatzeraño etzera oraindik iritxi. ¿Zer da nere erabakille Jaunak nitzaz jakin nai duna?

Pellok, emaztearen irri-par da itzez, ura iseka ari zala igarri zunean, guztiz asarretu zan: berez gisa onekoak diranen asarrera txit ikaraagarriya izate omen da, ta egun artan Mirenek, senarraren begik su ta gar ikusiyaz ondo ala gertatzen-t-zala igarri zun. Emaztea zan; senarra, aiñ ona izant-t-zitzayonez, maite zun; da lenengoz beragatik asarre ura zala ikusirjk, mimberatu zan: etzekin gañera, ala asarretutako gizon batekin zenbateraño jostatu liteken, da zerbait bildurtua, bañan egin-t-zitzayon galderari erantzun nai gabe, apal samar da maitetzu, ustez, senarrari ziyon:

—¿Zer dezu, ene Pello maitea? ¿zergatik ainbeste asarretzen-t-zera? ¿etzaizkizu. gertatu zaizkigun naigabeak naikoak dirala iduritzen? Bestien gauzak utzita, gureak bideratu ditzagu, ta or konpon bitez besteak.

—Enun uste, Miren, ainbesteko biyotz gogorra zeukazunik: ni ere gure gauzak bideratu naye z nabill; ez dizut inortxoren gauzez galdetzen, eta zintzo ta garbi erantzun nai didazun esaidazu.

—¿Ezetz esango banizuke, zer?

—Len esan ditzizudan gauz guztiak egiazkoak dirala esango nizuke.

—¿Eta ez dedala oraindaño gizon ori ezagutu esango banizuke?

—Gezurra diyozula: zure begiyetan, zure dardar eta itzetan ere gezur ori igartzen dizut; ortan bazaude, agur!

Au esan da altxa zan Pello eta atera zijuala, bere atzetik emaztea zijuakiyola oartu zun.

—Atoz, Pello; paketu gaitez, dakidan guztiya esango dizut.

—¿Egiyaz?

—Bai.

—Enazazu berriz, azkeneko aldiz, alderatu erazi.

—Ez, ez, nai dezuna esango dizut.

—Berriz eseriko maiz, da azkar, zintzo ta garbi dakizuna esaidazu.

—Gogoratzen naiz (asi zan Miren esaten) gogoratzen naiz gizon ori, orain amasei urte gutxi gora dirala, nere aitarengana etorri zala, len arrek euki zun lagun Polli zala esanaz; etxion nere aitak sinistu, ta etxetik bialdu zun: ¿nola aurrean geneukan gizon gaizki jantzi ta zaputz ura guk len ezagutu gendun Polli izan zitekean? Ondo egin-tzun aitak ura etxetik bialduak: ¿nork daki, Pollin izena artuta lapur-tzera etorri nai ote zun?

—Ta zuk len ezagutu zendun Polli ¿etzan ordun baldana eta ar-lotea izango?

—Ez, gizon txit eder bat eta galanta zan, bizar motx beltz eta gar-biz oraindik ederragoa, begi zabala ta musu gorriya; arren berri-keta txit alaya zan, arrek esaten-t-zizkigun kondairak arrigarriyak; etzan iñor, ura ezagutu ezkeroz, maitatzen etzunik, eta larri ta nai-gabez beteak arren galpen edo eriyotza jakin-t-zuten guztiyak gelditu ziran.

—Geyena arritzen nauna, ura ainbeste maite zutenak arren billa ez joatea da.

—Naiko gizon nere aitak arren billa bialdu zitun; nik ere billalari batzuek ibilli erazi nitun; bañan illabete bat barru mendiz mendi arrengan ezer jakin gabe eldu zitzaizkigun gizon ayek etxera.

—¿Eta etzuten ezer, ez zaldi ta ez gizonen arrastorik ere ikusi?

—Ezertxo ere ez.

—Eta etzun Pollik etxetik diru edo beste gauzen bit artu?

Ez dakit; nere aitak jakingo zun, eta etzidan ezer esan: zerbait beñepein eramango zun beste alditan bezela.

—¿Ta noiz asi ziñaten arren billa?

—Ura etxetik atera zanetik illabete bat barru; geyenetan gutxi gora bera illabeten bat ibiltzen-t-zan etxera biurtu gabe.

—Ta bitartean ¿etzun berak nun zegon, zer saldu zun eta nora juateko asmoak zeuzkan esaten?

—¿Zer dakit nik! nere aitak eta Pollik beren artean zebiltzkiten gauzak ¿nola nai dezu jakitea nik?

Au asarre samar esan-t-ziyon Mirenek eta ala zegola ezaguturik, Pello altxa ta gelako aruntz-onuntzak iraganaz eta aitu zitun berrik beregan garbi jarri nayez, gora bera ibilli zan, txandaka kopet eta kokotza eskuz jo ta elduaz, batzuetan zerura, bestetan emaztearengana begiraka; bañan bere larritasunari sinistu bear eskeroz, etziyoten ez burubak, ez ere zeru ta emazteak egiya adirazten. Ala ere, esaten denez, naimenak al asko omen du, eta azkenean ala zirudin; Pello bada lasaigo, pozez egiya igarri bazun bezela, emaztearenganatu ta arren aldamenen eseri zan da esan-t-ziyon:

—Miren, zekizkizun gauz guztiak esan dizkidazu noski, ayetan jardun naiz eta nere iritziya garbi esan nai dizut: gero esango didazu nik igarri dedana egiya dan edo ez; askotan zure larritasun da kezkek zure itzak gezurtu dituzte: orregatik, bai edo ez bakarrik erantzutea nai nuke. Entzun zaidazu:

Polli ederra ta aberatsa zan, zuk maite zendun noski....

—Ori gezur aundi bat da, era olakorik esan badizu nik niyon gorrotoa ongi zetorkiyon noski.

—Iso, Miren, iso; geroago itzegingo dezu, orain aditu. Zuk Polli maite zendun da izan liteke arrekin ezkondu nai izatea; arrek etzun nai; zuek ezin zenduten aberastasun guztiya zuenganatu, eta bestela eziñez, ura baztatu nai izan-t-zenduten eta, indioak zelayetara maloz zetozela jakiñik, ara Polli gaisoa, berekin lagun gutxi zeramazkila, ayek il-t-zezaten, ayek zeuden aldera bialdu zenduten: ura galdu zan, ni etorri nitzaizuten dirurik gabe eta zuek aberatsak eta ni beartsua giñañez zurekin eskondu erazi niñuzuten, zuen lapurreta isildu eta nerekin nai zendutena egiteko asmoan. «Gizona dabill» esaten dan lez, baña «Jaunak darabill» da Arren laguntzaz Polli inditarren arte- tik igesi egin da, agertu zitzaizuten; zuek ukatu ta lotsez bete zenduten, eta ura berriz alderatu zan; zuek patxaran, ura negarrez da ni kaiku bat egiña, alako gaiztakeririk ludi ontan ezin gertatu leikenekotan, bizi izan gera Jaungoikoak nai izan dun arte.

Zure aitak lengo gabean Jaunaren naimena ezagututa, damuz bete ta pake billa, Polliri zor zitzaiona ordaintzeko agindu zidan: zuk ere, arren eran, zure gaiztakerik utzita damutuaz ori bera egin-t-zazu, eta kito.

Nik izena ta nere izerdik eman nizkitzun; emendik aurrera, ona

bazera eta nere alaben ama zeranez, al dedan aiña lan eginda lagunduko zaitut: ez ajolik artu beartsu arkituko geralakotan; Pollik, berari ondo dirudiyona emango digu, eta arren diruz eta zeruko laguntzaz pakean bizi, eta zintzo ibilliko gera. ¿Nai dezu au, Miren?

¿Emazte bati olako gauzak esateko bidea nundik nora ta zergatik daukazu? ¿Zu zein-tzera? ¡Gure etxera morroitzat etorri ziñan arlote bat! eta Polli deitzen dan ori ¿zein? ikusi nunetik gorrotoa daukiyodan lapur bat; orrek bere gezurrez txoratu zaitu, Pello, ta orrek diyona nik esaten dizudana baño obeki sinistu bear badezu, ¡zuazte biyok emendik: ama bat bere alabakin pakean utzi dezazute! ¿lapurra ni? ni..... ez, ez; ¡us biyok nere etxetik!

Ta zotinka eta negarrez, alki bigun luze batera eroriyaz, amorruz ta esturasunez betea, suge bat bezela biribiltzen ibilli zan, beregan itzegiñaz, senarrak salatu zun bezela guztiya aitortuaz.

Pello au zegon txutik, kopetillun da besoak bularpetan zeuzkala, zerura begiraka: ¿emaztearen alde otoiñz egiten ote zegon? ala zirudin; bere arpegi makal da maitetsubak ala ziyon..... «Bizi asten dan su lañtertxo zaigu fu». Berealañen ernai jarri zan Miren, da ojuka asita senarra bildurtuko zulakoan, len bezela gogor ekin-t-ziyon Pellori; bañan artilleak gezi bat azkar aultzen duen lez, Pelloren pake ta asmo gordeak arren ausardiya bigundu zun, eta emaztearen gogo ta asmo kañkarrak igarriyaz, uste gabe, bazirudin bezela, esan-t-ziyon:

—Miren, oraindik gure aita zanaren alde egin-t-zitun laguntzangatik, ez dizkiyogu Polliri eskerrak eman: arrekiñ afaldu ta otordu bitartean ura biyotzez eskertzea nai zenduke?

—Ortarako nago zuk dakardazun bizitzarekiñ; oyeratzera nua; zuek al dan lenena etxe au utzita nai dezuten tokira juatea izango litzake onena.

Pello, bakarrik zerurontz begiraka Jaunari esaten asi zan: ¡Ene Jaungoiko maitea, nere aitagarrebarentzat errukiya, emaztearentzat zintzotasuna eta neretzat zure laguntza, zure Ama Deunaren izenean eskatzen dizkizut! ¡Arren, aiñ ona zeranez, indartu nazazu!

(Jarraituko da.)

LITERATURA VASCONGADA

POLLI TA PELLO, BI EUSKALDUN BIKAIN
DA ZINTZOEN KONDAIRA, LERCHUNDI TA BAZTARRI-
KA-TAR JUAN MANUEL, *Kalasan-z-darretako aba jaunak*
idatzia.

(Jarraipena)

IV

Nola Pello ta Pollik, irakurleak laſter jakingo duna egin-t-zuten.

Pello zetorrela, Pollik igarri zunean altxa, ta ate aidera juan nai izan-t-zun; ontan Pellu agertu zan samin bañan kementsu.

—Eseri gaitetz, Polli, ta emaztea ta ni zertan geldituko geran esango dizut.

—Etzaitu, nere ustez, ondo artu; ori zure arpegiyan ezagutzen da.

—Egiya diyozu; ez det ezertxore argandik atera; bañan zu, bear danez, neregan dago ordaintzea, eta ortara nator.

—Begira, Pello, zure ontasunez betetako biyotza maite det eta enuke nai neregatik naigaben bat izatea.

—Zugan ondo dirudi ori esateak, neregan ez: Praſkuk agindu zidan, Jaunak nai du eta ni, bear-t-zaizuna eman gabe, ezin ongi bizi neike. ¿Zenbat ostu zitzaizula, gutxi gora bera, uste dezu? Etzazu ezergatik gutxitu.

—Ez dago ondo nik ori esatea; ala ere, nai badezu eta artara bear-tzen banazu, gutxi gora bera irurogeita amar milla peso izango zirala esan nezaket.

—Ez daukazu buru txarra, Polli; egiyaz, ni ezkondu nitzanerako eun da berrogei ta amar milla zeuzkan nere aitagarrebak eta diyoizuna ondo dirudit; nik emango dizkizut. Poztuko da nere ama olako egin-

kizun bat bere semeak egin dula jakiten dunean: ta ¿zer dit neri, Jauna ta ura ez besteak nere kaltean ari badira ere?

—Nerea, ere Pello, doaitsu izango da, diru oyek berantzat eramanaz semea etxera dijuakiyonean.

—Esaidazu, Polli, nere asmoak zuzenak dirudizkizun: Prašku il ezkeror arren ontasunak guretzat dira; bere etxea erre ta saltegiya zer-bait galdu zaigu; alašen ere, asko oraindik ayez atera genezake: etxe ura, toki onean dagolako, zeñek erosi naiko dun badakit era arri salduko diyot; arrez artzen dedanetik erdiya gutxi gora bera emango dizut orain, eta gero.....

—Zure emaztea ernai egongo da onezkero, eta arrekin zintzo ibilli bearko dezu.

—Ez diyo ajolik; eun ateratzen baditut, irurogeita amar bakarrik artu-emanetan jarri, eta kito; ez det uste ori gezurtzat artu litekela noski.

—Ez, bañan zure emazteak sayakera oyek igarri lezazke, eta edozein gauz zure ta nere kaltean esan lezake.

—Ez dit orrek bildurrik ematen; arrek jakin lezaken baño lenago egingo da egin bearra; erosle ori ontzat eta lagun bikaintzat baidaukat, eta berak nik esana isildu eta nik egiña ondo datorrena dala esango du. Beste erdiya ez dakit nola eman al nezaizuken; ala ere, pizkabana, inortxo oartu ez dediñ, bateratuko det, eta garaiz esango dizut arren billa noiz etorri ziñezken.

—Begira, Pello; legez ta bidez, gizonen artean diru ori eziñ eskatu nezakena dala badakit; orregatik, zuk, Jaungoikoaren izenean ez bada, eziñ egin-t-zenezakelakoan, gauzak antolatuko dituzu; Jaunak esturatu bai, bañan beñere itotzen ez du.

—Ordun utzi nazazu; gauzak ongi aterako zaizkigu.

—¿Eta emaztea zertan dabillen badakizu? zuk burun daramazkizun asmoak igarriko balitu, ondatu lizaizkizuke ta.

—Ez det uste; beñere eniyon erritik eman, da gaur arritu ta asarretu zait, bere gorrotoa gu biyon kaltean agertu zayo, ta nere ustez asmo txar batzuek eragin nai zitulakoan oyeratu erazi det: ez det uste gaitz egingo digunik, orain beñepein..... gerogo berriz ikusiko degu.

—Arritzen naiz, emazteak asarretuta egon arren nola menegin dizun ikusiyaz; Mirenen gizatxarkeriya ezagutzen det, eta beraren menderarasuna zail-zaila dala badakit.

—¿Eta badakizu zer ortarako eskatu diyodan? Banekin etzegola

nere agindubak egiteko eran, da orregatik zuri aitarengatik egin dituzun lanak eskertzeko aitzekiz, zuregana afaltzera etorri zedilla eskatu diyot.

—¡Alajaña! emakumeak itzala bezelakoak dirala igarri dezu, Pello: argiya aurrean badaramazu, itzala atzetik dijuakizu: jartzazu argiya atzean eta aurrean itzala daukazu.

—Nere emaztea inoiz baño itzaliyago dabillega dirurit; oraindano aitu etzitun egiyak aitu ditu; ez du bat ere sūšen baimendu, bañan zearka bai nere esanak ukatu nai zitunean bertan; ayetatik asko arritu naun bat igarri diyot.

—¿Zer?

—Zuretzat daukan gorrotoa baño lenago zuri maitetasun pizka bat euki bear izan-t-zizula.

—¿Ori ere esan dizu? (zìyon Pollik arrituta).

—Ez dit esan, bañan igarri diyot; eta egìya dala bere larritasunak adirazi dit.

—¡Arren maitetasuna! jètzan maitetasun txarra! bañan ohea da gertaera au illunpean uztea: gauz bat bakarrik onen gañean esan nai dizut, arren maitetasun edo lisunkeritik datozela nere gaitz guztiyak.

—Ortan nago ni ere, eta gizon bat emakumeak orrela gorrotoan artzea errukigarriya dala esan leike.

—Geyegi dakit, era al bada lenbailen, zure ta nere atzegintzat, etxe au utzita, urrutiratu bear nitzake.

—Gaur ez dago bildurtzerik, biyar Jaunak daki; ala ere, nai badezu, afaltze arte biyok aterako gera, al dan lenena bear diran gauzak antolatzen asteko.

—Nai dezunean, guaz, bi egun oyetan ezer egin gabe nago ta aize artzeak ondo egingo dit.

—Guaz, bada.

Eta neskeari deituta neska txikik apainduta lašter euki zitzaala aginduaz, saltegiara jetxi, sal-erosiyak nola egun artan zijuazen jakin, da paper batzuek kutxatik atereaz, Polli ta Pello, onen bi alabakiñ ibiltaldi batera bazijuazen bezela, etxetik atera ziran.

¿Zertara juañ-t-ziran jakin nai badezute, ayen atzetik jardun-t-zaitzte, kondaira au irakurtzen dezutenak, eta alasen jakingo dezute.

Nesken ikastetxe batera eldu ziran lenbizi, ta an utzi zitun Pellok bere bi alabak ondo gorde ta zintzo aziyak izan-t-zitezen: negarrez, bañan menegille neškatxoak gelditu ziran; aítak musuka ta nai zuten

guztiya eskeñiyaz, laztandu eta etsi erazi ziyen, eta erakusle maitagarrri batzuen mendean luzaro bizi izan-t-ziran.

—Etzaitez arritu, Polli, nere umeak or utzi bearrean arkitzen bainaiz: orain datozkigun istillu artean ezin dute umeak onik etxean ikusi, eta gugatik galduak izan baño, nayago det ayek gabe bizi.

—Ondo diyozu, Pello; gurasoak Jaunaren ordekoak dira, ta au bezela onak ez izan arren, umientzat beñepein zintzo ta mentsu agertu bear dira. Bizi bitez aingeruak aingeruen tartean, eta ludi ontako naigabe ta neke samiñak ez ditzatela ayen biyotzak mindu.

Orain nere lagunarengana juango gera, alkar gero aitagiarrebaren etxe sutuba ikustera jua gaitezen: lagun au nere aideko bat da, txit ongillea; ta nere asmoak igarri ezkeroz, gu biyon anaya balitz bezela guregan izango dana.

Ta alde batetik bestera, bitartean erri ondatua nola zegon ikusi nayeayen zijuazen, beren biyotzak on da sarriurregiyak zirala adiraztent-zutela. Etzegon karrikik etxe erre ta puskatu gabarik: eunezko estalpe batzuetan bizi bearrean zeuden oraindik giñaiño asko, ezin janik, diru piska bat beren eta bere señidien gosea bete zezaten eske: gure bi gizonak zakeletan zeramazkiten diruk ayei emanaz da itz legun da maitetsu gañoai esanaz, guztiyen onetsi ta goraintzak bereganatu zituzten: bearra zeukaten.

Bere lagunaren etxera iritxi ziran eta beren izen da naimena adirazi ta berealañen ango nagusi Juan zeritzayonaren aurrean arkitu ziran.

—¡Ene Pello, nundik nora zu emen, eta alako egun ikaragarriyetan?

—Emen naukazu, Juan, Polli deritzayon lagun on batekiñ.

—¡Polli! nik nunbait gizon au ikusi det (ziyon Juanek gizon galant arri goitik bera begiratuaz): zu, nere oroipenak diyonez, nere ezagunen bat zera noski; ¿ez da ala, nere adizkidea?

—Bai, uste dedan bezela, Arregi tar Juan baldin bazera, zerantzun Pollik.

—Ura bera naiz, ta ¿noiz da nun ikusi zaitut? zure antza gogoan daukat eta.... itxoin, ¿etziñake zu Prašku nere laguna zanaren etxekoa izango?

—Au bera da, Juan, esan-t-ziyon orduan Pellok; eta onen bidez eta arren alde zerbaít egin ote genezan berarekin zuregana nator.

—Neregan balego, azkar egingo litzake, noski; badakizu, Pello, eziñ ezer ukatu nezaizukela.

—Ala gertatuko zitzaidalakoan natorkizu, eta nai nukena egiñ albagenezake, oraindaño baño lagun aundigoak izango giñake.

—Ala ezin balitz ere, ez dezu nerez artarako iñoiz ukatu nazaizula esango.

—Orduan ara zergatik eta zertara etorri naizen.

—Itxoin-t-zaidazu, Pello; lenbizi eseri gaitetz irurok, eta orrela lasaigo eta patxaran itzegingo dezu.

Ta esan da egiñ, barrendik alki batzuek ekarri, eta ayetan lagunak eseri erazi zitun Juanek, eta bera ere alki zabal-zabal batean, oso gize-na zegolako, eserita, zerbait artu nai ote zuten gogoz ta laztan galde-tuaz, bañan etzutela itzezin baizik nai ziyotenez, Pellori esant-t-ziyon:

Orain, Pello, nai dezun guztiya esaidazu, eta ondo dirudizuna agindu; nere laguna zera ta bear dan garayan ondo ni ere alaše naizela adirazi nai dizut.

—Artara nua, Juan: Polli nere aitagarrebaren laguna izan dala badakizu; au indiyotarren tartean iru urte barru bizi, ta Jaunak lagun-duaz etxera berriz biurtu zan.

—¡Ene Polli! ¿nola ayen tartean bizi izan-t-ziñan esango al diguzu? ¡alajaña! etziñuten petral ayek asko laztanduko.....

—Pellok diyona lenbizi entzuten badezu, gerogo, noiz nai nere ayen arteko bizitia egiztatuko dizut: ¿etzaizu obetogo iduritzen, Juan?

—Bai, bai, egiya diyozu, Polli; ta gañera gaur gabean irurok alkarrekiñ afalduko degula uste det: ¿ez da ala? itxoin zaidazute pizka bat (au esanez altxa, txaloka asi ta arren deyez zetorren emakume bati iru lagunentzat afari on da ugari bat altzan lenena jartzeko agindu ziyon. Berriz eserita, Pellori ziyon): Jarrai dezazu lengo esakizuna; ni itzontzi bat naizela badakizu ta askotan berriketan asten banaiz, utzi nazazu ajolik gabe.

—Bai, bada; Pello berriz etxeratu zanean, etzuten nere etxeoak ezagutu izan nai, bere diruak ukatu zizkiyoten eta lottez betea etxetik ušatu zuten.

—¡Ene Jainkoa! enun Prašku olakoa zanik uste: neregana etorri izan baziñan, Polli, orain beziñ alai ta gogoz artuko ziñudan.

—Lengo gabean, Praškuk, il baño lenago, ezagutu zun, eta zor zizkiyon diru guztiak ordaintzeko agindu zidan.

—Ondo, Prašku, olašen egiten dute biyotzezko gizonak: ona zan gišaišoa, ta bein batean okertu bizan ere, azkenean zuzendu zan.

—Bai, ta orregatik Polli ordaindu nai zun; bañan.....

—Bañan zer? eman da kito: nik ordun bertan papertxo bat egin, an zenbat Polliri zor niyon jarri ta aurrera.

—Ta ura bezela nai baño len il izan baziñan?

—Egiya diyozu. ¡Prašku gisaiŝoa! Jaunak beragana eraman dezala!

—Bere alabak, arrek agindu zuna, ez du egin nai, ta etxean istillurik ez izateagatik, arrek jakin gabe gauzak zuzendu nai nituke eta orregatik nere aitagarrebaren etxe ta saltegiya erosi nai zenduken galdezera natorkizu: ¿oraindik nai dezu?

—Gogoz, Pello, gogoz; aspalditik zale ori euki dedala adirazi ditzut; etxe ori toki egokiyen dago, ta nai dezun guztiya arren ordez emango dizudala badakizu.

—Ez dago orain len beziñ ondo etxea; zerbait erre ta galdu da; ta zenbatean eman nezaizuken esan bario len zuk zeorrek nola dagon ikusi, ta gero zenbat eman nai zidazuken esatea nayago det.

—Nai dezuna, Pello, ta nai dezunean.

—Orain bertan albazenduke; zenbat eta azkarrago obe.

—Emendik eta afaltzerako etxea ondo ikusi genezake; guazen bada berealaŝen.

—Guazen azkar irurok.

—Bañan lenengo onera berriz afaltzera etorriko zeratelako itza eman bear didazute.

—Bai, Juan, afaltzera, ta saldu-erosi ya amaitzera. ¿Nai dezu?

—Ori da nik nai nuna, Pello; guazen da zuk, Polli, indiyotarren artean nola ibilli ziñan esango didazu; ¿bai?

—Nai dezun bezela, Juan.

Ontan irurak altxa ziran, eta andik ordu batera etorriko zirala Juanek esan erazita, etxe errea nola eta zerez betea zegon ikustera, bata bezin bizkor bestea, jua-t-ziran.

Etxea zerbait ondatuba zegon; bañan etzan uste zuten aña galdu. Saltegiko aurrean zeuden oyalak bai ta bertako apalak ere, zurezkoak ziranez, erre ta alperrik galdu ziran; bañan barrengoak etziran sutu; orregatik Juan da Pello poztuaz, bata lan da galpen gutxiz saltegiya osatu leikelako, ta geyagoan saldu lezakelako bestea, biyak zenbat oyal da eun gelditu ote zan, zintzoak eta artan oitubak ziranez, berealaŝen igarri zuren eta laŝter alkar ondo bateratuko ziralako asmoan Juanenera berriz Pollirekin batean biurtu ziran: lenbizi Pellorenean berandu etorri bearrean arkitzen-t-zirala esanez, eta bidez gero lege gizon bat eta bi dakierazle deituaz.

Etxera zijuazen bitartean, lagun onak ziranez eta Pellok nai zuna obetogo eskuratzegatik, etxe ta etxeko salgai guztiz Juanek Pellori eun da amar milla peso emango zizkiyolakoan gelditu ziran, bañan paperetan irurogeita amabost milla bakarrik jartzeko asmoan, eta iñork merkegi zala esate bazun, etxea erre ta oyal tan eun salgayak asko galdu zirala erantzutekoan.

Deitutako guztiak alkartuta, berealañen saldu-erosiya antolatu zuten, eta besteak beren etxetara, bear-t-zan bezela sarituak jua da, gure iru lagun on da maitetsuak pozez beteta txintxurra bustitzeko gogoz jategi aldera jua-t-ziran.

(Jarraituko da.)

LITERATURA VASCONGADA

POLLI TA PELLO, BI EUSKALDUN BIKAIN
DA ZINTZOEN KONDAIRA, LERCHUNDI TA BAZTARRI-
KA-TAR JUAN MANUEL, *Kalasan-z-darretako aba jaunak*
idatzia.

(Jarraipena)

V

Ez dira indiyotarrak, esaten diran bezin gaiztoak.

Mayean eserita, afariya eskatu zutenerako, asi zan Juan Polliri indiyotarren artean igaro zun bizitza esan-t-zezala eskatzen: etxe eros-teak eta afari on batek baño kondaira ta berriketak geyago gizendu bear-t-zutela zidurin, eta Pello an egon izan ez bazan, afaldu gabe, kapote, Polli geldituko zan noski aifñ eztitsu ta gogo onezkoa zanez, arren nayeiz itzegiten asi izan bazan.

—¿Nola naidezu, Juan (ziyon Pellok), nola nai dezu, gu jaten gauden bitartean, Polli itzegiten jardutea, gose ta egarri egon arren? Lenbizi ondo jan da edan, ta gero lasai ta patxaran bere bizitza egizta-tzea obetogo dirudit: ¿eta zuri?

—Egiya diyozu, Pello: ni mutil koskorra nitzanean, sukaldera jua da, amonari su ondorean sorgiñen eginkizun da gerta era arrigarriyak esanerazten nizkiyon, eta ordundik oneraño kondaira zalea izan naiz: ¿nola nai dezute bada orain, izugarrizko gertaerak Pollik esan bear dizkigun ezkeru, oyek entzun gabe egotea?

—Jan ezazu lenbizi ta gerogo, Juan, zure gogoak beteko zaizkitzu: ta esaidazu ¿nungoa da etxean daukazun sukaldariya? !außen bai dala salda gosoa! beste janariak ere au bezela badaude jene gaurko afariya, ze minkitsua (1) izango dan, alajaña!

(1) Minkitzua= *apetitoso*.

—Ala izango dala uste det guztiya: nere sukaldariya, emazteak, nerekin eskontzera zetorrenean, ekarri zidan neskane bat da; ona, zintzoa, txukuna ta langillea.

—Emen zintzoak zerate guztiak: zu, euskalerritik emaztea ekarri zendulako; ura, andik neskameak ere dakarzkilako; andik ere semeak jayo, azi ta ekartzea izango litzake gauz zoragarriya.

—Ez uste, Pello: nere semeak emen jayoak izan arren, euskaldunak dirudite, euskeraz etxean itzegiten dute, ango oiturak dauzkate, eta ez dezala beste eraz ayek bizitzea nai gure Jaungoikoak.

—Ondo esaten dezu, Juan: «onak on dirala obeak obe» esaera zar batek diyonez: euskaldunak beti bikañak izan oi dira; besteak, nerez esan nezake..... «nere etxeko kea auzoko sua baño obea».

—Ori da, Pello; erdaldunak neretzat badakizu nolakoan diran? «Atarian uso, etxean otso, eta albadute gaizto».

—Bañan jan dezagun, Juan, Polli isil-isillik ari dan bezela; urte guztiyan barau egon dala dirudi.

—Ez, enetxo: Juanek afaltzera ekarri nau, da berak nai dun bezela ari naiz: gero go itzegingo detala zuk esan diyozu, eta itzegingo det: orrela, biyon naimena egiñez, atze gin utziko zaitutet.

—Ederki esana, Polli, ta naikoa jan ezker, nere otorduan bezela nere asmoan jardun.

—Naikoa jan det, Jaunari esker, ta oraintxe nere izaera egiztatuko dizutet:

«Pellori esan niyonez, iru morroyekin batean erri ontatik beste txiki batzuetara oyalak saltzeko asmoan irten nitzan; gauba iritxi zitzaigun tokian da garayan, zuaitzpe batera jua, mandoak alde batean lotu, zeramazkiten oyalak lurrera bota, ayen gañean etzin, da loak artu giñun: luzaro zaldiz gebiltzalako gogotsu lo egin gendun: ontan, mandoak irrintzika egongo ziralako edo indiyotarren belarriya bikaña dalako ez dakit, gugana isil-isillik etorri ziran era txumustuan, esnata al giñezken baño lenago, esku ta oñak lotu zizkiguten: ez gendun askatzeko ta indar egiteko garayik izan, gure aldamenan gutxienaz ogei ta amar indiyotar bazeuden, batzuek gu gode navez, besteak gure diru ta iskillo billa.

Nere morroi bat, guztiz asarretuta, ainbeste gauz txar da lotsakeri esanaz asi zan, da indiyotarrak, au aditu edo igarriyaz, zurezko eta iltzez betetako malluz buruba purrukatu ziyoten.

Ni beste biyaz bezela isillik egon nitzan, Jaunari lagundu nezaidan

eskatuaz, ete neri nai zidatena egiten utziyaz: berak lurretik jeki ta mando gañetan jarri giñuzten: bi zatitan, eta gu zagi batzuen eran lotuta erdiyan garamazkitela, goizean goiz mendi aidera iyo ziran.

¡Ayen oju ta zalapartak! batzuek irrirtzika, beste asko eskuetan zeukaten geziya goratu, ta gero arren billa jasupaka (1) juanez, mutil koskor talde bat ziruditen: lotuta arkitu izan ez bagñian, erres igesi egin genezaken; bañan jene Jainkoa! ezin gendun. Ontan beste indiyotar saill aundi batekin topo egin gendun; gizon da emakume, mutil ta neska, guztiak batean nastuta zetozenak, gu arrapatzez gauz onen bat eragin bazuten bezela, txaloka ta alai agurtu zituzten, eta guztiyen erdiyan gu eta gure lapurrak jarrita, beren nagusi edo gidariyarenganatu ziran, lapurretako bejondeyak artu eta zeramatena erakusteko asmoan.

Indiyotarren gidari ta jabea gizon aundi bat zan, arpegi zabal, begi beltz eta sudur motxa, lenbizikoan gizatxarra zitudin; bañan azkar ogi puska bat, eta biyotz onekoa, zala jakinerazi zidan: bere aldamenean neska gazte ta galant bere antzeko bat zeukan eta orregatik bere alabatzat artu nun.

Gure arrapatzalleak inguratu zuten, denak txutik, eskubiyan burnizko aga edo akullu bat zeukatela, ezkerra bularpetan jarrita, iru bider oju bat, nagusiya agurtzeko eran, egiñez, makurtu zitzaizkiyoten eta ayen buru zirudina aurreratu, pizka bat auzpeztu ta gero bere izkeraz, egintzuna adirazi ziyon noski; eta jabeak, gugana begiratuaz, zerbait agindu zun.

Orduan gudari batzuek, gureganatuaz, gu, lotuta giñuzkaten lo-karriak laban luze batzuez puskatu, ta lurreratu giñuzten: elbarri ta goseak, oñak ta eskuak minberatuak euki arren, bildur geundela ez adirazteagatik, kementsu aurpetzeko nere morroyai esan niyen, eta oñez ta zutik jabearen aurrean jarri giñan, zer gertatuko ote zitzaigun jakin gabe.

Ni lenbizi arri aurrean jarri nitzayon; begiz begi jabea ta bere alaba jarri zitzaizkidan; alaba bakarrik utzita neregana etorri zan aita, eta abere bat banitz bezela, goitik bera sorbaida, bizkar, bularpe beso ta anak aztatu (2) zizkidan, da gero nere indarrak igarri nayeaz, eta nere bizkar ezurak bere eskuz arrapatuaz, lurreratu izan nai niñun; nik asmo ori igarri niyon da indar egiñaz txutik, tente gelditu ni-

(1) Jasupa= salto.

(2) Aztatu= palpar.

tzan: indiyotarren ojuak eta jabearen begirapen asarretuak enula arrela ezer aterako igarri erazi zidaten, eta berriz ni lurreratu nayez ekin-t-zidanean, lenbizi bai gogor nirudila zutik egon nitzan; bañan gero-seago, nekatu banitz bezela, pizkabana makurtzen asi nitzan: berriz oju ta txalo asko aitu nitun; jabea irriparrez zegon; gudariak jabea txaloka eta ¡gora! ¡gora! esanez agurtu zuten, eta artan jabea arro ta ni indartsutzat artu giñuztela ezagutu nun.

Bakarrik egon izan bagiñan enun ala jabea utziko; bañan ¿ze nai dezute? bizitza gordetzeagatik apaltzea, ta aul iduritzea obegotzat euki nun.

—Alajaña! era txarrean arkitu ziñan, Polli; indartsu, gaizki; eta aul, gaizkigo.

—Ala da, Juan, eta nere besoetan artuta lertu bear nuna, ni bañon geyago balitz bezela, arro-arro utzi bear izan nun.

—Ta gero zer egin-t-zizun ?

—Gero? gero gertatu zitzaidana okerragoa izan-t-zan; bañan neri ongi etorri zitzaidau, orain jakingo dezutenez.

Ni bañon indartsugoa zala jabeak adirazi zunean, nere a'dameneko gizon bati akullua kendu, neri eman, da erdera txar batean nola arren gudariakin antolatzen nitzan ikusi nai zula adirazi zidan. Sugartu nitzan; nere akullua luzegiya zirudidan eta belaunetan jarri ta puskatuaz zerbait moztu nun eta baserritar batek makilla darabilkiñez nik ere bi eskuz artu ta erabiltzen asi nitzan, lenbailen gudan asteko gogoz betea.

Artan, indiyon beltz gorri aundi bat aurreratu zan; bere akullua al-t-zun aiña luzatuaz neregana zetorren eta, zauritu nai niñula igarriyaz, ni ere aurreratu nitzayon; bañan nere makil motzez ezin ikutu nun: berak zirikatzen niñun etaegiayaz, ni il nayean zebillela oartzen nitzan: arrek gogor da zuzen ekiten zidan, nik barean eskubira eta bestean ezkerrera bere zirika joaz alde erazten nebillen, eta sayetzetarazten nun; alako batean nere etsayak ernegazita alegin guztiz ekiten zidala, bere akullua zearka joaz eskuetatik kendu niyon, eta orduan arren-ganatuta buruba nere makillez puskatu niyon.

Neke ta izardiz beteta gelditu nitzan; ala ere, deadarka eta bere irrintziz biyotzean zeukan asarrea adirazten-t-zula beste gazte bat etorri zitzaidan: enitzan bildurtu, su ta gar bainegon eta gogoz ekin niyon eta laſter lurreratu ta elbarri nun: orduan bai ni ere pozez eta arro jarri nitzala! guztiak arrituta zeuden, eta beste iñortxorik etzetor-

kidala ikusiyaz, nai zuten guztiak etorri zitezela esanez ayen erdiyan txutik eta ernai gelditu nitzan

Naikoa da! jabeak orduan esan-t-zun eta, bere alabarekin neregana etorrita, bizkarrean atzegin eskuz joka «indartsua ta bikaña zera, adiz-kidea», esan-t-zidan.

—Zuk indartsugoa dirudizu, ¡alajaña! erantzun niyon.

—Nerekin bizi nai bazendu, laguntzat artuko ziñuket.

—Nai ezkeru il eraziko niñuzukela badakit; ala ere aini ona neretzat izan nai dezunez, eziñ artara ukatu niteke; bañan gauz bat lenago eskatu nai nizuke.

—Zer ?

—Nere bi morroi oyeq, ni bezela barkatuak; nerekin bizi ditezela; zure mutillak morroi bat il-t-zidaten; beste bi oyeq, zure besapean artzen badituzu, ez dituzte ilko.

—Bañan ez dirudite oyeq zu bezela atzerritarrek dirala: oyeq emengoak, eta zu arrotza zera noski.

—Bai, arrotza naiz, euskalduna, Jaunari esker: ala ere euskaldun bikaña naizenez, bein laguntzat artutakoak betiko artzen ditut, eta orregatik, bizirik uzten nazunez, oyeq ere uzteko eskatzen dizut.

—Ala izan dedilla; bañan ez dezatela nerien tartean gaitzik egiñ; orrela ayek zure morroi ta zu nere laguntzat gelditu zaitezte.

—Ekatzu zure esku ongillea, bertan muñ maitetsu bat eman dezai-zudan; eta nere eta gure Jaungoiko altsuak zu ta zure alaba dirudin au onetsi zaitzatela betiko.

—Begira nola nere alaba poztu dezun; lenengotik zutzaz bizitza eska ari zitzaidan, eta ori ezagutuaz eskertzen diyozulakoan dago.

—Zu bezelaren ona dala esatera nijuan: orain nitzaz errukitu ta nere alde artetu dan ezkeru, nere erregintzat artzen det, eta nai duna agintzen badit, pozez al dedan eran men egingo diyot.

—Ondo dago: zuaz orain nik bialduko dizudan mutil batekin, eta arrek nun da nola zure bi lagunekin bizi ziñezken esango dizu.

Orduan bere erriko gizon zar eta altsuenai deituta, jabeak, arren laguna nitzala esan, da bere seme bati bezela neri ekurtzeko (1) agindu ziyen.

Guk, pozez eta lengo etsayak orain agurtzen giñuztelakoan pozago, jaunaren ekurtariya etorri arte itxoin gendun, eta ura etorri zitzaiguan arren atzetik juañ giñan.

(1) Ekurtu=*servir*.

Mendi tontor batean zelai aundi bat ikusten-t-zan: arren aldameanean eta inguruan baso aundi bat goyen zuaitz banakatu batzuek zeuzkana, pillaka ta estu-estu be aldera; eta bean ibai aundi bat egon beart-zan aditzen gendun abarrotsak ziyonez: zelai artan txao! batzuek ikusten giñitun, eta neretzat berriya zan alako gauza begiratuaz, zer erri izan ziteken galdetu nun, eta «indiyotarren lo egiteko etxeak», esan-t-zidaten eta gaberako jabeak ala agintzen bazun ara jua bearko giñala.

Igarri nunez aspalditik maloi tarera atereak ziran indiyotarrak, eta gizon zar da emakumeak beren seme ta senarrak lapurreta aundi bat eginda zetoze!a jakin zutenean, menditik jetxita ayen bidera etorri ziran eta orregatik ainbeste notin geuden tokiyan alkartu ziran, da pozik, zerbait berentzako ekarri ziyez-telakoan: orregatik aña alai ta atzeñin zebiltzan bata bestearen billa, gurasoak seme arkituak laztanduaz eta emazteak bere senarren aurrean pozezko negarrez.

Arratsaldea aurreratua zegoñ: egualdi ederra zan, eguzkiyak zearka mendi aldera jetxiyaz berotzen giñun, eta andik irteteko garayan geunden: orrela jabeari ere iduritu zitzayon eta txaoletara zuzen-zuzen juateko bere gudariyai agindu ziyen. ¡Ikusgarriya da noski ainbeste indiyotarren jua-etorriya!

Emakumeak beti istilluka ta berriketan, umeak bizkarretara zapi beltz batekin egindako zizkuetan sartutuba jaso, oyalaren ertzak bularpetik gerrira bilduaz lotu, eta gañera besapetan fardel aundi batzuek eramana, asto becarditsu batzuek ziruditela lenbizi atera ziran: atzetik mando ta mandozayak, batzuek zaldizka, geyenak oñez: oyen zai berri gudari geyenak beren agintariyen mende eta guztiyen atzetik guztiyen jauna mando eder baten gañean, bere alaba aldameanean zerabilkila: neri mando galant bat eman-t-zidaten, nere lagunai ezer ez, eta nere atzetik oñez zijuaen.

Ez da erreš olako gizapill nastu bat zaintzen: orregatik ezker esku-bitan bide zai batzuek gora bera zebiltzan iñor bidean arkitze ote zan, edo bateonbat gelditu bear ote zan begiratuaz, eta bear-garayetan ¡geldi! edo ¡aurrera! ojuka esana.

Ibiltaldiya asi gendun mendi bera ta astiro: aldapadak gogor samarrak ziran tokiyetañ zearka; zelai zabaletan zuzen: onela ibaira iritxi giñan: etzan ain zabala, bañan ikaragarriya bai: bi mendi tartean erreka aundi ta estu bat zetorren, indartsu, zeramakin aldaparez, lurra ebaki ta zulatu zuna: etzan bertatik ez bada ikusten, eta ura be-

giratuaz arren marmar-ots eta farrastaz oarturik txorabiatu zeiken bat: eta erreka edo ibai ugari ta indartsu ura iragan bear gendun: artarako zubi txiki bat bakarrik zegon, eta oso estuba esan-t-zidatenez: ¿zenbat ordu andik ibaya iragatzeko bearko ziran? bañan ¡nere arritasuna araño iritxi giñanean!

Liana deritzaten aga me batzuek iruna alkarrekin biurtuta eginda-ko lokarri sendoak alde batetik bestera eta hi zuaitz oiñ, ondo lurrean, arkaitz tartean arrazpetuai lotuta, zeuden gutxienaz amar: ayen gañean ola batzuek, berak ere alkar erautsi ta lotuak, eta ol kaskar ayen gañetik zijuazen bana ta binaka bildur gabeko indiyotar ayek.

Oituak zeuden noski: ainbeste gizonen astunez zahoatzen-t-zan (1) zubiya, ta ala ere bildurrik gabe iragandu zuten guztiyak: nik, begiyak itxirik, nere laguna ez dakit nola, zubi txar ura iragan nun.

Gerogo ez dakit nola ez giñan il guztiok. Txaoletara iyotzeko aldapada luze ta gogor bat geneukan, eta susen eziñ iyoan zearka aldapada artu gendun: bateonbat irristaru izan balitz, goitik bera ezin iñun gelditurik, ibairaño jetxiko zan: bañan ez uste iñortxo galdu zala: Illargi eder batez argituta gizonak zuzen, emakumeak makur eta abereak gizonen adimena baluteke bezela berez, zaldizkoak zirikatzen etzituztela, zijuazen: gure gizontaldia, ibaitik igesi zijuan suge bat zearka mendi gora goiko zelayetan ezkutatu naizuna zidurin: ¡bai luzea! Azkenean da gau erdirako lertu ta elbarriyak iritxi giñan, jateko baño etzateko gogo geyagorekin: ala ere, aragi erre piska bat andik ordu erdi baterako eman-t-ziguten, da ori jan da esan-t-zidaten tokiyan berealañen loak artu niñun.

—Alajaña! egun txartzat indiyotarren artean igaro zendun lenbizikoa euki zenezake, Polli: beste guztiak olakoak izate ezkeroz, iru urte zorigaiztokoak eman dizkizu Jaungoikoak.

—Ez uste, Pello: aurreneko eguna, bai, zorigaiztoko neri ere iruditu zitzaidan; bañan ondorengoak ez ainbeste, ta azkenean, sinistu zadazu, nere ama bizi izan ez balitz, doaitsutzat eukiko nitun indiyo tartean igarotako egunak.

Urrengo goizean, esnatu nitzanerako, eguzkiya naiko goratua zego: jeki ta jaztera nijuala, norbait nitzaz galdezka zegola igarri nun: txaolatik irten da, eskuetan fardeltxo bat zeukan gizon bat ikusi nun, da zertara zetorren galdetu niyonean, neretzat soñeko bat zekarrela ziyon. Arrituta zeñek eman zezayoken galdetu niyon, eta au eran-

(1) Zaboatu=*cimbrea*se.

zun-t-zidan: «Jaunaren zai, arren txao! inguruan negon, da goizean goiz arren alabak deitu dit, au onera ekartzeko, eta zu esnatu arte emen itxoiteko aginduz: eta gañera, zu soñeko au jantzita ayen txaoletara lenbailen jua-t-zaitezen adirazteko esan dit.»

Enekin zer egin soñeko arreakiñ: ala ere, bialdu zidaten ekurlariyaz lagunduta, alnun bezela jantzi nitzan; da burnizko akullu bat, ekurlari arrek berak ekarri zidana, eskubian artuta jaunarenganatu nitzan: bertan zegon bere txao!a, eta nere itxoeran zeuden noski, ni eldu baño len bada atera ziran aitalabak, eta atariko lurrean oyal eder ta apaindu baten gañean eserita pozez, igarri niyenez.

Nola negon eta ondo lo egin nun galdetu zidaten: aita, aurreko egunean bezela jantzita zegon; alaba, ez; apaindua eta oso txukun, da irripar egiñez neukan. Al izan nun eran neretzat zeukaten aldetasunagatik eskerrak, onegiyak zirala esanez, eman nizkiyen, eta au ontzat artuta nere maitetasuna oraindik geyago bereganatu nai zutela adirazi zidaten.

Ayekin gosaldu nun; berakin, neska erdiyan geramala, indierri guztiya ikustera jua nitzan, eta ezin zezakezute zuek nere orduko poz, atzegin da samurtasuna igarri.

Mendiko aldapadan zegon zelai batean zeuden gure txao!ak, baso tarte pollitanean: basoetako inguruetan beste sendiyenak: ayek ikus tera jua giñan: guztiak txikiak, baño pollitak ziran. makil da ostoz egiñak eta mendian gure erriyotako baserriak bezela banakatuak: jua-na ta bere alaba zijuazela indiyotarrak igarri zutenean, gizon, emakume eta umeak beren txaoletatik aterata, bidean auzpez jartzen-t-zitzaizkiyen, Jaungoikotzat bazeuzkaten bezela eta gero altxata beren atzegin da naimen samurra adiraziyaz; dantzan, txaloka ta irrintziz juifa! (1) esanez agurtzen t-zituzten. Enun uste ainbesteko begirapenik ayen tartean izango zanik; bañan ikusten nunez aitatat zeukaten beren jabea eta basoetako lore kutuntzat arren alaba, ta legez ta bidez, aifi ona, eder samarra, galanta ta maitetsua zan ezkeroz: neretzat ere, len esan dedanez, errukitsua izan-t-zan, arri nere bizitza zor niyon, era bear izango bazan, arreatatik eta bere alde alegiñak egiteko asmoak neuzkan.

Gora ta bera eguardi arte, basoetako erri pollit ura ikusten ibilli giñan, da gero, gure txaoletara iritxi baño lenago, mendi arren tontorrera, gure jabearen menpeko lur, baso ta zelayak ikustera jua giñan.

(1) Uifa=gora (indiyotarren artean).

¡Ze gauz aundi ta arrigarriya gure begi aurrean geneukan! Goyan, eguzkiya, zeru urdin da zabal baten erdian, bere argitasun zoragarriya nun nai išuri eraziyaz: ezkerrean, mendi goraitutako galant, zeruak beren buruz ebaki nai zituztenak eta bata bestien aldamenetan mailaka ipiñiak: gure eskubian beste ainbeste mendi, maillaka ere txikitzen ari ziranak; eta urruti, bean, alako zelai aundi ta eder, itxaso baten eran zabalduak; ta guztiya, zuaitz, belar, lore ta ibayez betea: ¡zer aunditasun da ugaritasuna! Ikusten giñitun mendi guztiak jabearen menpekoak ziran, gizon, abere ta lurra: «au egin» esaten bazun, berealasean eunka zijuazen ura egitera gizonak: «au jan nai det» baziyon, bere morroyak eiztari jua da nai zuna zekarkiyoten: «an bizi nai nuke» esan eskeroz, esan beziñ azkar bere txaola zeramakiyoten mutillak, eta beste ibar pollit batean txukun jarrita zeukan: ¿zeiñ ura bezela?

Ainbeste aunditasunez arrituta negonean, Kolo, jabeak itzegin-t-zidan:

—¿Nai zenduke, Polli, nere aberri aundi ontan nerekin beti bizi?

—Kolo jauna, nere biziya zure eskuetan daukazu, eta nai dezun arte emen zurekin biziko naiz.

—Bañan gogoz, benetan biziko zera?

—Ama bakarrik daukat ludi ontan, Kolo; ama on, maitetsu ta zar bat: arreatatik nere mendi ta etxe maitea utxi nitun; arreatatik dirua irabaztera alde oyetara etorri nitzan, eta arren aberastasun ta doaitasuna eskuratu gabe enaiz berriz etxera juango; bitartean, eta nere zorigaitoz ezin nezakenez, zurekin biziko naiz.

—Urre billa bazatoz nik nun dagon erakutsiko dizut; bañan ni bizi naizen artean enazu utziko: ¿nai dezu, Polli?

—Bai, itz eman dizut, eta emandako itzak nola euskaldun batek gordetzen ditun ondo jakingo dezu.

—Ta ni bizi naizela ¿utziko niñuzuke, aita il ezkeroz, ume zurtz bat egiña? alabak (Txala zeritzayonak) galdetu zidan.

¡Ene Jainkoa! ¿zer erantzun bear niyon? ain maitetsu nitzaz errukitu eta biziya gorde zidanez eziñ ukatu nitzayon; nere amatzaz gogoratzen nitzan; au zarra, Txala gaztea zan.....; ala ere, eskertsu, biyotza samurtua neukala lañter erantzun niyon:

—Egiya diyozu, Txala: onegiya izan-t-zaidazu ume zurtz bat egiña uzteko: etzaitut utziko: zure aldamenean, bizi zeran arte, egongo naiz..... ¡Jaungoikoak ama ta ni lagun gaitzala!

Eta ayek pozik, ni berriz atzegabez beteta, txaoletara jetxi giñan, bear-t-zan arte, alkarrekin bizitzeko asmoan.

—Ai zazu, Polli (jardun-t-zan Juan): igesi egiñez ¿etzendun itz emana jan?

—Ez, Juan, enun jan; Jaunak ondo lagundu zidan da.

—¿Nola ordea?

—Berandu da, Polli (orduan Pellok esan-t-zun): etxera juan bear degu; eta biyar nai badezu Juani erantzungo diyozu: ortako etorri dedilla Juan guregana ekarri lezaken diruarekiñ, eta alkarrekin baz. kaldu ta gero orain bezin gogoz aituko dizugu, Polli: ¿Nai al dezute?

Artan gelditu, eta beren etxera Polli ta Pello juant-ziran, Juan-i ¡gabon! maitetsu esanaz.

(Jarraituko da.)

LITERATURA VASCONGADA

POLLI TA PELLO, BI EUSKALDUN BIKAIN DA ZINTZOEN KONDAIRA, LERCHUNDI TA BAZTARRIKA-TAR JUAN MANUEL KALASANZ-DARRETA KO ABA JAUNAK IDATZIA

(Jarraipena)

VI

Biyotz on bat zorionez asetzeko ez da naikoa aundi ta altsua izatea

Biyaramoneko eguardi aldean gure iru lagun ezagunak alkartu ziran, da Pelloren etxean, len esan bezela, bazkaldu zuten ugari ta oparo: ez da askotan euskaldunen artean goserik arkitzen; da bein batean nai gabe alako bearrik oartzen badute, ondo ta laster kitotzen dira, lengo esturasunen orde ase ta arzegintasuna artuaz.

Orrelasen, atzezin da aseak zeuden gure iru lagun Polli, Pello ta Juan.

Etzan ez, len, aurreko arratsean eskeñitako gauzez aztu Juan, iru retatik jakinayena, eta jan ezkeroz etzun Polli izketan asi erazo besterik nai; orregatik itz emana gogoratu ziyon, eta Polli, ze pozez indiyotarren gertaerak Juanek aitu nai zituen oartuaz, ayek jarraitzen jardun izan-t-zan:

«Bart arratsean Kolo ta Txala, nere nagusi berriyai, ayekin bizitzeko itza eman niyela aditu zenduten.

Itz emana itz egiña, esan oi da, ta asmo artan ayekin bizi nitzan ongi, bearrik gabe, eizean nai banun, gudariak bere eginkizunetan nola jostatzen ari ziran ikusten batzuetan, eta ayen oiturak ta beren berriak ikasten bestetan; eta beti pakean: nai aiña daukaten bitartean ez dezute indiyotarrak baño apal da alperragorik iñun da iñoiz ikusiko.

Alako batean, auzoko indierri batetik ogeinbat gizon gudari etorri

ziran alai, txukun da altsu ziruditenak: poztu ziran gureak, eta erle batzuek bezela alde batetik bestera ze ote ziran eta zer naiko zuten jakin nayer zebiltzan.

Kolo, Txala ta ni bazkalondoan itzegiten geuden, eta alako zainparta adituta gu ere zer izango ote zan jakitera atera giñan.

Zuzen-zuzen eta guregana zetozen gudari ayek mando aundi batzuetan zaldizka; jetsi, agurak eman, eta eskuetan urre ta zillarrezko apaingayak erakutziyaz, Kolo-ren aurrean auzpeztu ziran, eta onda ayetako baten bidez itzegin-t-ziyoten:

«Gure jabearen orde z ta arren izenean zuregana, eta zure alabaren billa gatoz; aspalditik Txala ederra maite dula diyo, ta emaztetzat artu nayer, zenbat arren orde z eskatu nai dezun jakin nai du.»

Poztu zan Kolo, ta onela erantzun-t-ziyon: «alako jaun altsu ta aberats batek nere alaba maitatzeik atzegin aundiya damakit; bañan erantzun baño lenago Txalak naiko ote dun jakin nai nuke»; ta alabari eragiñaz galdetu ziyon: «Ene Txala, nere biyotzeko kutuna, bialdu oyen jaunarekiñ ezkondu nai al dezu? altsua da, ta nere lagun txit maitea».

Txala geratu zan txuri ta ori argizayaren eran jarrita, neri begitaka, uste nunez, zer erantzun bear-t-zuan neri galdetu nayer egontzan. Ni ere zerbait genastuta negon: ainbeste aldiz nere aldamenen iriparrez ikusiyaz, ezer bear nun guztiyetan arren emaitz egokiyak artu, ta arren nitzaz zeukan maitetasuna igarriyaz, zerbait barrundik kendu nai zidatela oartu nitzan, eta bildurrez noski, indiyotar ayen eskaera gaizki artzen nula adirazi niyon.

Orduan Txalak arro samar da iriparrez «etzula nai» garbi-garbi erantzunez, gizon ayek otz-otz utzi zitun.

Ni poztu nitzan; Kolo kopetillundu, era bialduak ere asarretu ziran; bañan etzun iñortxok ezer esan: indiyotarrak egiya ezterazteko gezurri bikañak dira.

Kolok orrez naigabe aundi bat zeukala esan-t-ziyen besteai, eta oyek, alako emakume eder ta ona eziñ eramana miñez jakingo zula beren jaunak; ala ere, zeramazkiten apaingayak Txalarentzat utzi zituzten, eta ez alai arren, ustez apal da atzegin beren errira biurtu ziran.

Ezer gertatu ez balitz bezela gelditu giñan berriz, eta beste eguntan bezela, pakean etxeratu ta lo egiteko asmoan oyeratu ere bai: bañan gau artan lo baño amets geyago egin nula uste det. Ez det nere biyotza agertuan erreš jartzen, bañan arratsalde artan bai, ordutik au-

rrera odola irakiña baneukan bezela, biyotza eziñ apaldurik igartzten nun, aldiz aldi pozez eziñ lo arturik, ta beti Txala begi aurrean neukala, arren oroimenez betea, neregan asi nitzan zer gertatuko zitzaidan ari ta ari ekiten.

Emakume batek maite izan nau, neregan niyon, da arren maitetasunak naiko neke ta gaitz ekarri dizkit: onek ere maite nau..... gaitzen bat onek ere ekarriko ote dit? ez det uste: au ona da, ta nik maite det..... bañan nere amaren ondoan bakarrik oraindano doaitsu izan naiz..... arregana juan nai nitzake, era onek eluke ori naiko..... ¿beste arrek egin-t-zidana nik egin bear ote niyoke gaiso oni?

Orrela negola zalapart aundi bat aitu nun; esnatu, jantzi ta bere-alasen atarira eldu nitzan..... da arrituta, lotsaz ta miñez betea gelditu bear izan nun ange oju ta negarrak zerez zetozen jakin nunean. ¡Txala gaisoa, gau artan, bere aita elbarri ta bere bi zayak ilda utzita, arrapatu zuten! ¿Nola? ¿noiz? ¿zeñek?

Bei bati bere txekorra kentzen diyotenean ez da ni orduan beziñ gogor marruka jartzen; su ta gar egiña, Kolorengana juan, da arren naigabe ta nekeak eziñ eramanik, enitzala arren alaba berriz ekarri gabe bizi ta etorriko esan niyun, eta gudariyengana juanez, esan niyen «Piska bat Txala gaisoa maite dezutenak, atozte nerekiñ arren billa, lašter, bereala».

Au esan beziñ azkar, zaldi bat eta nere makil ta geziyak artuta, mendi gora juan nitzan, zenbat nere atzetik zetozen ikusi gabe: ara iritxi ezkeroz, zaldiyak altzun bezela, mendi tontorretik zuzen-zuzen ibilli nitzan, ibai iturrietara altzan lenena iristeko asmoan: enun uste andik lapurrak juan zitezkeela, bañan esate nunez «atzoko indiyotarrak izan badira, emendik erres ikusiyak izan litezkenez eziñ juanean beko basoetatik iragan bearko dira, ta norck daki iturriyeta eldu baño lenago arrapatuko ditudan? eta ari ta ari, eziñ geyago zaldiya zirikatuan tximist bat bezela nijuan: noizean bein, nere atzean oju batzuek aitzen nitun, eta neretakoak zirala igarriyaz, poztu nitzan; ala ere enitzan gelditu, nai nun tokira iritxi arte.

Iturriyeta iritxi ta zalditik jetxi, ura zuaitze batean utzi, ta auzpeztu, belarriak lurrean, zerbait aditze ote nun, jarri; ta goiko eta beko aldetik zaldi otsak entzun nitun: nere etsayak ogei gutxinaz izango ziran: ¿eta nere lagunak? ¿garai onean etorriko ote zitzaizkidan?

Berriz zaldizka jarrita bide aldera irten nitzan, eta nereak zetozela

ikusi nitun: zetozen lez, alderdiko mendi tontorretara bialtzen nitun, bakoitzari bere tokiya ta nola txistuka deituko niyon erakutsiyaz; eta gero etorri ziranakin, bostnaka bideetara bialduaz, basoetara jetxi nitzan: ara eldu ezkeroz, isillik ezer ikusi arte egon, ta txistuka norbait oartzean nola deitu bear-t-zuten esanez.

Iya berrogei izango giñan, erdiak mendiyen eta beste erdiak basoetan: eneukan bildurrik; eta ez giñan luzaro itxoiten egon ere.

Goitik bera erreñ aditzen da, ta zaldi askoren laurinkak obeto; eta, lurrean belarriak euki ezker, eroñeago: ala dala, azkar zetozela igarri gendun da bele bat dirudin txori baten eran txistu egin da bere lasen ogeyak alkartu giñan: ibai aldeko bidea zekarten etsayak; ni laurekin bidean; da beste amabostak bide aldamenen: jarri giñan, eta esan niyenez, Txala zekarkina ikutu baño bere zaldiya iltzeko asmoan, eta nere txistua aitzen-t-zutenean, gogor ekin nayezen ernai geuden guztiyok.

Ala geudela, etsayak agertu zitzaizkigun; lenbizi besoetan Txala gaisoa erdi illa zekarrena: etzuten noski an itxoiten geudela igarri; zuzen-zuzen zetozen, da alai: orduan txistu egin da aurreratu nitzan, nere makilla zaldiyaren bularpetara arteztu ta bit batean geldi erazi nun: zaldiya, bai, lertuta lurreratu zan; bañan zalduna Txalarekin batean ibai aldera erori zitzaidan: naigabe artan, zer egin jakin gabe, arrituta, geldi negon; gezi bat bialdu zidaten, eta besoan sartu zitzaidan: ¡nere miñ da amorroa! nere makilla berriz erabilliaz, asi nitzan bata ta besteari buruba purrukatzen eta etzezatela iñor bizirik utzi aginduaz, bidea garbitu gendun ibaira nundik jetxi algiñezken toki billa.

Ontarako mendian zeuden lagunak gure deira bazetozen, eta ayek guk asitako ondamena amaituko zutelakoan, lau edo bostekiñ, ibaya zabal samar da geldi zegon baztar batera jua nitzan: jetxi, lagunak an begiraka utzi, ta ur otz aytara sartuta ibai gorontz iyotzen asi nitzan; zoko guztiak ikusiyaz, arkaitzak al nun bezela gañeratuaz, arriz arri batzuetan: adarra elduta bestetan eta nun nai larri, baztar batera, bi gorputz nekuzkin zulo batera, garai onean, Jaunari esker, iritxi nitzan. Gizonak, emakumea lepotik artuta ito nayezen, urpean sartu erazten-t-zun; gaisoa bere kemen da indar guztiz eragiñez gizonari eltzen-t-zitzayon; bañan onek, indartsugoa zanez, alderazi ta barren-tzen-t-zun: olako batean, nere gezitako bat bularrerara bialduaz, gizona zauritu nun; bera erori zan, emakumea erantsi zitzayon eta

uren indarrez Txala bera zetorrela arrapatu nun. ¡Gaisoa, erdi illa ta itotzeko zegon! An bertan bere gorputza buru bera nere belaun baten gañean jarrita udak bota erazi nizkiyon eta bizkar, bular da sorbaldak igurtziyaz, piztu nun; eta lenbizi dardarka, gerogo oju ta zotinka asi zanean, zetorkiyon izardiya barrendu etzezayoken, lagunai deitu niyen, bitartean Txala gaisoa besoz jasota urik ikutu gabe neukala.

Lagunak, makillez lurra bekainduaz, berandu arren, nereganatu ziran, eta guztiyen artean era piskabana ibai beera Txala jetxita, eriya gaitztegi izugarri artatik atera gendun.

Eguzkitara eraman gendun ezkerro, al da Txalari zegokiyon bezela legortu zan gaisoa; eta ordun begiyak irikita, beren artean ikusi eta poztu zan; bañan ezin oraindik itzegiñez, garo piska baten gañean etzinda zegola, besoa neregana altxa, ta nerea erakutsiyaz, odolez betea negola esan nai zidan..... da bi malko begiyetatik zerizkiyola jarri zan.

Etzan ezer nere zauriya, ala esaten niyon; ala ere begiak itxi ta buruz ukatzen zidan: ¡gaisoak bere gaitza baño nerea geyago errukitzen-t-zula zirudin! da nerez min geigo ez emateagatik, beste bati besoko gezi puska kendu eraziyaz, ibaira juan da besoa garbitu, sendagaitzat indiyotarrak dauzkaten osto batzuek zauriyan gaindu, ta belarrez besoa lotuta gero: garbi ta txukun Txalarenganatu nitzan berriz: ni ongi negola uste izan-t-zunean, bera ere ondo zegola ziyon, eta aitarengana lenbailen juan nai zula.

Ez geneukan arrentzat zaldirik, eta etzun arrenatik iñortxo oñez juatea izan nai; berez ezin zitekkelako aitzekitan, aulduta zegonez, nerekin zaldiz ibilli nai zula esan-t-zidan. Ala, nere zaldi gañean nai zun bezela jarri nun, eta nere besoetan neramakila geldi-geldi txaoletara berriz guztiak biurtu giñan.

Enaiz arratsalde artzaz beñere aztuko: ni bezin musu gorri, nere beso ezkerre bere eskuz goso, miñ eman etzezaidan, laztanduaz, erdi parrez ta erdi negarrez itzegiten ari zan, biyotza samurtzen-t-zidala.

—Enazu, Polli, beste gizon gaizto arrek bezela il naiko noski? zidan.

—Enuke nai, Txala maitea, alakorik nere besoetan zauden bitartean zuri gertatzen: ¿ezeren bildurrik al daukazu, Txala?

—Ez ez; bañan iltzekotan, emen zure aldamenen naiko nuke: ¡gisaisoa! neregatik larritu eta ainbeste odol išuri dezu! ¿miñ asko emate al dizu zauri onek? ¿etzera nekatzen? neregatik indarrak juingo zaizkizu, eta gaisotuko zera, Polli?

—Ni sendo ta indartsua naiz..... ta etzaitez nitzaz errukitu; oraindik zu eramateko aña baño indar geyago daukat; ondo zuazela esaidazu, ta pozik egongo naiz.

—Bai, ondo nua; otzik nagola oartzen naiz, bañan ez da ezer izango.

—¡Gaisoa! dardarka zaudela dirudit, atoz, atoz neregan, ea berotzen-t-zeran piska bat: berealasen aitarengana iritxiko gera, eta an obetogo zainduko zaitugu.

Bera besapetatik eldu zitzaidan; arren begiak neregan, nereak arrengan, batzuetan pozez, bestetan gaišo ote zegon bildurrez, eta biyok esturasunez ezin itzegiñik gjuazen: ez dakit nundik gebiltzan, erdi txoratua negon; enitzan beñere alako gertaldiyan arkitu, eta zer egin da nola ere enekin.

Txala erdi lotan jarri zan, da ez dakit ametsetan edo ernai zegola, nere izena isiltxo maizatzen t-zun: ni atzegiñez ura ala ikusiyaz, nun negon ere aztuaz, zaldiya zaindu gabe nebillen: ontako batean irris-tatuta zaldiya erori nai izan-t-zitzaidan: galpen artan, Txala izutu ta ni larriturik ernai, zaldiya zuzendu ta Txalari eldu nayezer atzeratu nitzan piska bat, nereganatu nun, arpegiz alkartu giñan da uste gabe bat batean alkarri musu eman giñiyon.

Au da nere bizi guztiyan nere amari ez bada lenbizi eman diyodan musuba! Txalak etzidan ezer esan; ni erdi poz erdi lots isillik gelditu nitzan; bañan arren atzegiñak, eniyola gaitzik egin, uste det, ziyola, eta ni enitzan artzaz damutu.

Orrela txaoletara atsedean iritxi giñan: aitaren aldamenean gaisoa jarri, sendagilleak billatu, ta alai samar aita alaba egun artan utzi giñitun.

—¡Alajaña! Polli, alako gertaera gosoak esaten arita kopetillun-segi ikusten-t-zaitut: ¿oker egin-t-zendula al dirudizu?

—Ez, Juan, ez; Txala gaisoaren oroimenak oraindik minberatzen nautelako da; bein bakarrik maitatu izan det, gogor, ongi, sutsu....., ta maitetasun arrek biyotzean arantz bat sartu balit bezela, miñ ematen dit.

—¿Zer bada, ludi ontara maitetutzeko ez gera etortzen?

—Bai, bañan egryazko maitetasunak gutxi izate omen dira, ta gartsuak: oyek biyotza sutu ta lertzen dute noski ta orregatik ezin dira luzatorako etorriyak izan. Nerea beñepein zorigaiztokoa eta gutxi iraun lezakena izan-t-zan.

Kolo neke ta atzekabez auldua; Txala, ibaira erori zan egun zori-gaizto artatik aurrera, gaiso; gu eziñ ayek sendaturik; egunak zijua-zen, eta zorionik itxoin gabe, egunetik egunera goibeltzen nijuan: egun guztiyan ayen aldamenetik atera gabe negon: berak, Txala bei-ñepein, ni alaitzeagatik, poztuta bazeuden bezela, iriparrez, azkar sendatuko zirala ziyoten; bañan ayen arpegi makal da aulduetan eriyotza igartzen niyen eta zenbat eta alaigo adirazten-t-zitzaizkidaten ainbat gogorrako naigabeak txorutzen niñuten: alderatzen nitzan eta ostera, ayek gabe eziñ egonik, ayengana biurtu, ta berai begira erdi illa ego-ten nitzan.

Orduko gertaera txar batek atzeğin pitiñ au ere kendu zidan.

Autzoko etsayak, beren lagun lapur ayek il ginizkiyelako, gorro-toan artu giñuzten eta gure mendiyetan sakabanatuta eizean abelgo-rrik bezela gure gizon da emakumeak arrapatu, ta erruki gabe iltzen-t-zizkiguten: okerkeri oyek zuzendu bear giñitun: gudarik nagusi ta gidaritzat artu nai niñuten, da ezin nitzan ukatu; nai ta nai-ez nere gudariak artuta, etsayen billa juan bear izan nun.

Goibel da asarre, Txala gaiñoa ta Kolo oyea utzita, gudara atera nitzan.

Gorrotoak sugartzen niñun eta etsayen ondamen izugarri bat nere gudariyai eskeñi niyen: zatika guztiak mendiz mendi bialdu ñitun, zati bakuitzari nundik, noiz ta nora juan bear-t-zun, da bidean nola etsa-yai ekin bear-t-ziyen esanez: nerekin kementsuenak artu, ta ayekin ni ere etsai billa juan nitzan: ez dizutet zenbait etsai egunero, ba-surdeak baziran bezela, iltzen giñitun esango: bat ikusi ala eiztariak bezela sakabanatzen giñan, eta ura lurpean sartzen bazan ere jarraitzen giñiyon, da ill arte ez gendun uzten.

Orrela amar egunetan ibillita gero, ibar zabal batean alkartu ,ai-ñan guztiak, etsayen erri aundiyetako baten inguruan: ayen gudako oiturak banekizkin, eta batean elbarri ta ondatu naye, itsumustuan arrapatu izan nai nitun.

Ortarako gauzak bideratu bear: ibar ura luzea ta zabala zan; alda-menetan baso aundi batzuek zeuden; nere gizonak lau zatitan jarri, ta bi aldetako basoetara bialdu nitun, bat ibar erditik etsayengana agiri juan-t-zan eta, etsayak ni gudaritzat nijuala bazekitelakoan, nere or-dez eta nere soñekoz jantzita gizon galant bat zati arren burutzat bial-du nun; ni berriz, gure errirako bidean nere gudari bikañenakin es-taligeldittu nitzan.

Gure gudari zatiya isil-isillik etsayengana aurreratu zan: etsayak beren basoetatik jetxita ekin-t-ziyon; bañan gure gizonak gogor eragiten-t-ziyezten ere, eta onela luzaro gudan ibilli ziran: andik ordu erdi batera. gureak, menderatuak izan baziran bezela, nere aginduz igesi egin da atzeratzen asi ziran: etsayak, irabazle zeudelako ustez, arro ta zalapartan atzetik ekinaz gureganatu ziran: orduan, txistu egin nun, nereak basoetatik ibarrera aterata, atzeratzeko bidea etsayai itxi ziyen, eta inguratu ta alderatuak zeudela, zaldizkoakin gogor da kementsu ekin niyen; lenbizi geziz, geroseago akulluz, nai aña ta zei aundi batean itxita dauden zezenak bezela iltzen giñitun: etsayak, uste zuten baño geyago giñalako arrituak eta inguratuak zeudelakoan bildurtuak, igesi egin nai zuten, bañan alperrik: nere zatietara istent-ziranerako geyenak geziz zaurituak edo illak erortzen-t-ziran: azkenean bildurrez etsi, ta ardi bildurti batzuek bezela alkartu ziran, eta alde batetik bestera ikarez, dar-dar zebiltzan: orduan nereak artaldi ura, otsoak ardiak bezela, purrukatu zuten, eta geyenak illak, oso gutxi eriyotzari deika, utzi giñitun. Orrela gure etsayen agintari ta gizon bikañenak ondatu ziran.

Gu erruki gabe ayen errira juan da, emakume ta aurrak andik atera erazi, batean bildu eta, erriya su ta gar jarrita, guztiz erre gendun.

Beste erri txikiak erreš menderatu, txaolak erre, abelgorriak arrapatu, eta ume ta emakumeak jasoaz gure txaoletara alai ta pozik berriz eldutzeko asmoan biurtu giñan.

Ainbeste eriyotzez indiyotar erri ura ondatuta ondo egin nun, edo ez, enuke esango: alde batetik ayen gaiztakeriyen oroimena, Txala ta Koloren gaišotasuna, nere bidezko asarrea; ta gañera, lur ayek gizon langilleak erresago eragin lezazkeneko usteak, ontzat euki erazi zidaten; bañan ango eriyotz da ondamenak, emakumeen negarrak, ta aurren gerorako bizi errukigarriya igarriyaz, biyotza zimeldu zitzaidan.

¿Zein nitzan ni ainbesteri biziya kentzeko? ¿ez da Jauna gure bizi ta biyotien Jabea? ¡Berak, aih on danez, barka dezaidala!

Orrela neregán irakurriyaz txaoletara nijuala, ango berriak izan nitun. ¡Txala gaisoa illa zan! Kolo gigaisoa iltzeko zegon! Ta nik, ainbeste eriyotz eragin nitunak, nere maite ta bere aitaren biziya ezin nitun gorde!

Nere esturasunean bakarrik egon nayeaz, lenbailen Kolorengana juan bear nulako aitzekiz, gudariak atzean utzi nitun, da bi lagun bakarrik artuta juan nitzan isillik, goibelduta.

Etzegon orduan neretzat alaitasunik; eguzkiya illundu zitzaidan: Txalaren begiak itxita egon ezkeroz, enun ezer ikusi nai; biyotza samur, gorputza aul, ta nere bizi guztiya urtzen-t-zala ziduridan. ¿Ta Kolo ere iltzen bazait? Aspaldian euki nun asmoa orduantxe berritu zitzaidan: bai, ura ere ilko balitzait, mendi oyei agur egin da, aldan lenena igesi juango nitzake!

Asmo ontan iritxi nitzan; Kolo giñaiñoak oraindik ezagutu niñun; Txala gaiñoak neretzat gordeta zeukan urre-auts pil bat eman-t-zidan..... eta nere besoetan il-t-zan.

Alperrik ango gudariak jabetzat artu niñuten; ayen aukerak eniñun atzegintzen: beren ontasun da maitetasunak ere miñ ematen-t-zidaten, ¡Errukigarriyak, nere Txalatxoren eran, nik maite izan nitun guztiyak!

Nerekin batean indiyotarrak arrapatu zituzten bi lagun ayek, an egoteko etzeuden ni baño etsiyagoak: ondo bizi ziran nere laguntz-pean; ala ere, kayol batean gordeta dauden txoriak bezela, andik igesi egiteko asmoa artu gendun.

Eizera gijuazenekoa aitzekitan, maiz atera ta bi edo iru egun baso ta zelayetan igaro izan giñitun: alako batean, betirako mendi ayei, nere maitetasunaren obi zorigaiztokoai agur esanez, alde oyetara jetxi giñan: Txalak utzi zidan urrez zelai batzuek erosi nitun, eta ayetan masti batzuek jarrita, nere bizitza oraindaño irabazi det.

Au da, ene adizkide maiteak, indiyotartean etorri zitzaizkidan gertaeretatik aundiyaena.

—Ta pollitena, ta gogoz aitu deguna, Polli.

—Ezagutzen da Jaunak laguntzat zaukala, Polli.

Juan eta Pelloren esan oyei Pollik erantzun-t-ziyen:

—Egiyaz beti lagundu didala ondo dakit, eta emendik aurrera ere lagunduko didala uste det: ez du inortxo gure zaitzat dagon Jaungoikoak laguntzik gabe uzten: askotan, erdi itotzen bat uzten dula dirudi, bañan azkenerako beti laguntza bialtzen diyo.

—Ondo esana, ziyon Juanek: zure gertaeretan ondo adierazi du ori, eta emendik aurrera denok ezagutu bear genduke.

Orrela alkar atzeginduaz itzegiten iraun-t-zuten da beren saldu-erosiyen diruak, esan-t-zan bezela, banakatu ta gero, beste batean arkitzeko gogoz, ta maitetsu agur alkarri emanaz alderatu ziran: Juan bere etxera, Polli bere erri aldera, eta Pello etxean gertaera berriyen zai gelditu zan.

LITERATURA VASCONGADA

POLLI TA PELLO, BI EUSKALDUN BIKAIN DA ZINTZOEN KONDAIRA, LERCHUNDI TA BAZTARRIKA-TAR JUAN MANUEL, KALASANZ-DARRETAKO ABA JAUNAK IDATZIA

(Jarraipena)

VII

Emazte gorrotuaren mingaña zorrotz, biyotza berriz otz.

Polli bere mastiyetara alderatu zan egunean, Pellok atzegiñez betea zirudin: bakarrik gelditu zan ezkerro, bere emaztearekiñ itzegitera jua da iñoiz baño apal da paketsugo arkitu zun: etziyon lengo egunetan bezela ezer aitatu, ez zergatik aiñ gogor berarekiñ egon-t-zan, ez eta Polliri zor zitzayona, ez la ere aurren alderapena.

¡Oraindik biyotz piskabat badaukala dirudi nere emazteak! ziyon Pellok beregan; damutu da noski eta biguindu..... ¿nork daki oraindik asmo batekoak izango ote geran!

Eta ala ziyola bere emaztearekiñ jardun-t-zan; etxeko galpenak gutxitzat zeuzkaten, aitaren etxea oroimen gaitzgillekoa izango zalakoan ondo saldua izan-t-zan, eta uste baño diru geyago dindetu ziyen; errukigarrizko gauz bat bakarra gertatu zitzayen noski, Prašku gaišoa zanaren zorigaiztoko eriyotza; bañan Jaunak bere doaitegira Prašku, aiñ ona izan-t-zan ezkerroz, eramana zeukan noski, eta ala oraindik gertatu ez bazan ere, beren otoitz, doaike ta eginkizun onez, azkar bideratuko zuten: ortarako juango zan Pello apaiz batengana, altzan lenena Praškuren alde mesak ugari eman-t-zitzan..... da kiño.

Senar emazteak ortan gelditu ziran; pozik Pello, emaztea len bezin biguin da zintzoa arkitu zulakoan; pozago Miren, aiñ erres Pellori zirriya sartu ziyolako ustean.

Pello, berez gizaseme ona, erreš atzipetu zitekena zan; orregatik gauzak andik aurrera nai bezela aterako zitzaizkiyolako ustean, lenbailen apaiz jaunarengana juan, eta len esandako mesak emateko arri eskatu ziyon: an, apaizarekin zegola, Polliren gauzak bururatu zitzaizkiyon, eta ayetzaz arren iritzi billa itzegin nai izan-t-ziyon.

Apaiza azkarra ta ona zan; Pellori esan nai zun guztiya patxaraz entzun-t-ziyon, eta aditu ezkerero, bere iritziya onela adirazi zun:

—Zure asmoak onak eta zuzenak dira, Pello; baña nekez beteko zaitute; ez da nai beziñ erreš ludi ontan olako eginkizun arrigarririk egiten; legeak ez dizute lagunduko; zure emazteak, esan didazunetik igartzen dedanez, galeraziko dizu; eta biyotz aundiya ta kemen altsuak bearko dituzu ainbeste trebeski menderatu nai badituzu.

—Ez dit ajolik, Apaiz Jauna; nere lagun Pollik diyonez, Jaunak lagunduko dit.

—Egiya diyozu: asieran naigabe asko izatea gertatu lizaizuke, ekiñ orduan gogor; ontan biyotz zuzen da bikañekoa zerala adiraziko diyozu, eta Berak, zenbat eta neke geyago arren bidez eraman bear dituzun, ainbat geyago lagunduko dizu eta sinistu bear didazu, azkenean gauzak ondo aterako zaizkizula Jaungoikoaren ordezeskeintzen dizut.

Arrenbaimen da laguntza euki ezkereroz, ez diyot iñori bildurrik izango, egin bear dana egingo da, eta aurrera.

—Ondo, Pello; nik ere aldedanez lagunduko dizut, eta oirtako zer gertatze ote zaizun, jakiñ eraziko didazu, ongi badirudizu.

—Bai, Jauna, bai; etorri ta esango dizut.

—Agur, bada, Pello; biyotz on izan, eta Jaunak lagundu zaitzala!

Juan-t-zan Pello etxera eta bere lanetan beti beziñ zintzo jarduntzan, Jaunaren eskuetan bere asmoak utzi ta gero.

Bitartean etzan bere emaztea lotan egon.

Miren, emakume eder bat, eta egoki ta txukun jantzi oi zana zan: bere begi bizi ta beltzak goitik bera boteonbat begiratu ezkereroz menderatzen-t-zuten; bere itz legun da gosoz edozeñ bereganatzen-t-zuna zan; alaba bakarra, amarik gabe biziya, aita onegi baten mendean azi, ta berekoya aterea zan: andre berekoi bati bildur euki bear-t-zayo berak nai duna eziñ egin danean. Ederra ta aberatsa dala esanez, lusiñ-gatzen badezu, ona zera: bere asarrearen bildur zaudela adirazten badiyozu; gaiztoa izan arren, barkatuko dizu; on da gaiztoak ere andre berekoyak bere inguruan agurtzalletzat nai, ta bear ditu; bañan iñoiz

arrez ajolik ez dezula, edo ezerez bat balitz bezela, daukazula igartzen badizu, arrendandik gorde; ez dizu beñere alako aben gaiztoa barkatuko: eguzki ondorean ez dabillen izar batetzat artugo zaitu, gaizki zabiltz, eta zu bideratu nayez, albadu, eta purrukatu arte, besterik ezin balu, ez da geldi egon nai izango. ¡Errukigarriyak alako emakume baten inguruan dabiltzan gizonak! mitxirriken eran egoak erretzen dizkiyen argipean erori arte, nai ta nai ez iraun bearko dute, Pello gisaisoak bezela.

Miren ere etxetik atera zan; aita il-t-zitzayonetik, etxean eta lagun da ezagunen damualdiak aditzen egon oi zan, da ayek eskertzerako asmoz ayengana zijuan.

Arratsalde artan, ezagutzen degun Juanen amaztearengana eldu zan Miren, etxe artako guziyak arritu erazirik.

—¿Nundik nora, ziyon Zelek, Juanen amazte txit onak, nundik nora gure Miren eder ta zoragarriya?

—Lagun errukitzalle ondora, biyotz neketsu baten zoriona billatzaera.

—¡Ene! ondo egin dezu, Mirentxo maitea, ziyon Zelek musuka laguna lastandua: atoz, ene maitea; ni bezelako lagunak zure naigabeak beretzat artzen dituztela badakizu: ta ¿alabatxoak? ta ¿senarra? ¿nola daude?

—Nere alabak, negarrez urtu ez ditezen, ikastetxe batean; nere senarra lanean; eta ni bakarrik, aitik gabe ezin bizi nitekela, zurtz bat egiña etxean.

—¡Miren gaiñoa! negargarri zaude noski: bakardade oyetan, iñork uste dun baño geyago, biyotza urtzen da; eta gizonak, biyotzik ez baluteke bezela, bakarrik uzten gaituzte; ¡emakume gaisoak!

—Zure orde z orisen esan nezake: lur-ikara izan gendunetik zenbait gaitz etorri zaizkidan! aita il, ni gaiso, arren etxea erre ta ondatura, ta ala ere gaurdaño, piñinka ez bada, ez da nerekin nere senarra egon.

—Ez da bada ona ta errukitzallea ez dalako izango; doaitsua zu, alako senar bikaña ta zintzoa daukazuna; egiya da, ederra ta aberatsa zerala; ta zuentzako senargai asko aukeran arkitzen dira.

—Etzait bada zurea txarra dala iduritzen.

—Ez, enetxo: ontzat daukat, eta ezin nezake besterik esan artzaz; bañan zurea obe ta zintzogoia dala ez didazu ukatuko.

—Ez, ez: oraindaño beñepein oso zintzoa izan da; bañan orañ ez dakit zer sartu zayon buruan; erdi txoratu zaidala dirudit.

— Ez det uste; zerbait, ainbeste maite zun aitagarreba il-t-zayolako, nastu leikela enuke ukatuko; bañan txoratzerano ezin leike, Andre Miren.

—¿Ezetz? nik ala uste det bada. ¿Ze uste dezu lengo egunean esan zidala?

—¿Zer?

—Aspaldi nere aitaren lagun izan-t-zan Polli bat gogoratzen dezu? ura, bada, agertu dala, diyo orain Pellok.

—¿Zer! ¿aiñ alai ta ederra zan gizaseme ura? ¡Ene! ¿egiya da? eta ¿etzan Polli ori zurekiñ ezkondu nai izan-t-zuna?

—¡Ja, ja, ja! Enekiñ ezertxo ere: ¿nork eman dizkizu olako berriak?

—Ez daukat gogoan: bañan ori esan-t-zidatela sinistu zaidazu.

—Enaiz ortzaz arritzen, ainbeste gezurrezko gauz nun nai esaten dira ta: orain Polli ere agertu dala bezela.

—Nere senarraren laguna zan, da alako gertaera, egiya izatekotan, jakingo zun noski; eta ez dit ezertxo esan.

—¡Bai zera! ¿zer esango zizun? etzekizun oraindano, ondo dirudiyetena bakarrik senarrak emazteai esaten digutela?

—Inortxo barrenen goarpeak eziñ euki lezazkenik ludi ontan bada, nere senarra da noski; dakizkin berri guztiak, naiz aundi ta naiz txikiak, esaten dizkit: orregatik isildu lizaidakien berririk ote dan eziñ esanezake.

—Ez dizula nere etxea lengo egunean erosi zula esan?

—Bai enetxo, ta zenbatean ere bai.

—Ordun ez det ezer esan: neri bai, gaur bertan zure senarrak etxe ura asko nai zula eta lagun ona danez, doaitxo bat egiteagatik merke saldu diyola esan dit Pellok.

—Merke ta doaitxotzat diyozu? ¡Alajaña! Ez gera zuek beziñ abe-ratsak izango; bañan oraindik doangi bearrik ez daukagu: ez, enetxo; ta etzazu etxe erre ori merke saldu dezutela esan: eun da amar milla peso etxe arren orde z geyegi dirala uste det: nik beñepein enizkizuten larogei baño geyago eskeñiko.

—Ala zuri iduri arren, merkegi saldu zaitutela deritzat; bañan etzaitz orregatik asarretu; saldu erositetan gure senarrak konpon dituzela, ta kito.

—Nai ta nai ez; onak daude garai oyetan gizonak beren artu-emanetan guri sartzen utzitzeko: «emakumeak sukaldean, eta albalitz eltzean» nere senarrak diyonez.

—Ala diyote gizonak berak nun nai dabiltzan bitartean: bañan berandutu zait, eta etxera nua: ¿noiz ikusiko zaitut neregan, Zele ederra?

—Noiz nai, eguri oyetako batean juango naiz zuri ikustalditxo bat egitera.

—¿Ordu arte, bada, ta bitartean ondo bizi.

—Agur, Mirentxo.

Era ontan da pake ta maitetsu bi andre ayek alderatu ziran.

Miren, karrikaz karrika zijuala, beregan barrendu eta esaten ari zan:

«Polli etorri zanik ez dakite: ondo; ta bitartean nere Pello ain zintzoak, gezurti bat egiña, diruak ostu nai dizkit bere Polli lapur orrentzat; jøgei ta amabost milla peso! jøz da ezer, alajaña! eta oraindik geyago eman nai izango dizkiyo! Ez, Pello, ez; ni bizi naizen bitartean beiñepeñ ez didazu geyago lapurtuko.»

Ontan etxera eldu zan, eta etxeko langillien burutzat zegonari deitu ziyon, lenbailen etxekoandrearengana juan-t-zedin aginduaz.

Patxi zeritzan langille buru au, eta emakume zale bat zan; ayen irripar batez txoratu zeikena eta artarako al-t-zitun lusinkeri ta berri-ketak egin nai zituna: jarren poza bere etxekoandreak deitu ziyola jakitean! ¿Ze naiko ote zun? ¡alajaña! albazun, arren naimenak ondo ta gogoz egingo zitun, bai: ez dago eskuetara datorkigun txoriyari anketatik eldu besterik!

Eta ala ziyola, txukun da tente, arpegiz alai ta irriparrez etxekoandrearengana iyo zan, zer agindu nai ziyon jakiteko asmo ta pozez.

Mirenek, bere gelan sartu ta eseri erazi zun, da gizonari goitik bera, jabe zanez, begiratu ta gero esan-t-ziyon:

—Nere etxeko artu-emanak ongi juango dirala uste det noski: ¿øz da ala, Patxi?

—Ezin lirake obetogo, ene etxekoandre ederra : emengo diru guztiak zureak izan nai dutela diruri.

—¿Nola ori? enekiñ, eta ez det oraindano diruak ere arrosko jarri litezkeanik jakin.

—Itxasoko arrayak, lurreko lore ta zeruko izarrak eguzgiya ikusi nai duten bezela, diruak ere eltxetxotatik atereaz datoz, ludi ontako erregintzat dagon andre eder da lerdena ikusi nayaz.

—Ene, Patxi: ¿ori esaten dizute darabilzkizun guztiyetan diru oyek?

—Ez ditet itez ori esaten; bañan igartzen diyet: eskuetan artzen ditudanean, gazupaka gora, orain ni nagon tokira, zure menpean jarri nabez dabiltzkit.

—Ta zu?

—Ni..... ni..... ayen ordez jarri nayezen gelditzen naiz.

—Eskerrik asko; ta orain, ayen ordez zaudela, ez diyezu bekaitzik izango noski?

—Ez, alajaña! doaitsutzat eukiko naute: ta ala zer agintzen didazun jakin nabez naukazu.

—Egiya da; zure lušinkerigatik orretzaz aztuta negon: zu aspal-ditik nere etxean zaude, nere aberastasunen gora-berak badakizkizu, eta beti zintzo ta bikiña neretzat izan-t-zera; orregatik, eta aita il-t-zaidanetik ni neroni nere gauzen zai izan bear dedalako, zure lagun-tza eskatu nai nizun.

—Agindu zaidazu, eta ez eskatu; ¿zer egin nai dezu?

—Emendik aurrera, zenbat diru etxera sartu, ta zenbat ateratzen dan jakin nai det; eta iñork ez dakila ezarri eta deitzen dizudan ba-koitzean esango didazu.

—Erreš da pozik : egun oyetan iñoiz baño geyago sartuko zaigula uste det; lur-ikara gertatu danetik eroslari asko, erriya nola dagon ikusteko aitzekiz, etortzen dira, eta zorrak kitatu; eta, datozen ezke-roz, zerbait geyago erosten digute.

—Obe, Patxi; ta ez dezala iñork jakin nik esan dizudana.

—Orain gauz bat datorkit burura, eta ori jakitea ondo iduriko zaizulako ustez, esan nai nizuke.

Esan, bada: ¿zer da burura etorri zaizuna?

—Eranegun nagusiyak ere beste gauz zirzil bat agindu zidan; da aundiya da arrek orrelakorik agintzea.

—¿Zer-t-zan, bada?

—Etxera sartzen-t-ziran diru guztiyetatik pizkabat, eundik bi, al-deratzeko; eta kutxa txiki batean gordetzeko agindu zidan; eta ez da-kit zer asmo izan zezaken.....

—Nik, bai, badakit; ta orregatik nik ere len esan dedana agindu dizut; bañan ez dezala nere senarrak artzaz itzegin degula jakin.

—Etzazu ardurik euki; zurekin orain bezela atzegin itzegiteagatik urte batez, ala bear bada, isillik egongo nitzake.

—Zuaz orañ lenbailen lanera, eta emendik zortzi edo amar egu-nera deituko dizu.

—Agur, bada; nere erregin da etxeoandre ederrak nai dun arte. Bi agindu arrigarri ayek igarri nayez, lan egitera jua-t-zan Patxi. Miren berriz, bere senarraren asmoak igarriyaz, nola ura, elbiya armiarma batek bezela, bere saretan arrapatu zezaken asmatu nayez, luzaro egon-t-zan.

Zortzi egun ayek beste asko bezela laster igaro ziran, Pello atze-gin, Miren maltzur zebiltzala: ezin da nai dan guztiya bat batean egiñ, eta etorkerak lasai itxoiteak ez du beñere gaitzik ekartzen.

Mirenek, lasai zirudinez, iñoiz baño maitetsugo itzegiten-t-ziyon Polliri, eta etzun onek zer izugarrizko naigabea zetorkiyon igartzen.

Patxi, etxeoandreaaren deira, esan datiez, berriz iyo zan eta bere papertxo batzuetan ezarrita zeuzkan artu emanak Mireni adirazi zizkiyon.

—Artu-eman oyek ondo daudela ikusi al dezu, Patxi?

—Nere etxeoandre agurgarriyak ori nai izatea naikoa da, ala izan da izateko.

—¿Ta iñork igarri dizu ontan zebiltzala?

—Ez det uste; jona naiz ni zure aginduak oker egiteko!

—Ongi dago; emendik egun batzuetara zure bearra izango det; ¿lagunduko al didazu?

—Gogoz ta bizkor.

—Orduan gaur, bakarrik utziko nazu; beste batean luzaro itze-gin bear degu; noiz izango dan ez dakit; bañan laster jakingo dezu.

—Lenbailen nere doaitzaz izan dedilla; bitartean ondo bizi zaite, ene etxeoandre maitagarriya.

Ta agur esanez jetxi zan Patxi lengo aldiz jakiti-t-zun baño geyago igarriyaz: «emen zerbait gertatzen da, ziyon; neri dirudidana izango ote da? ala balitz..... itxoin, Patxi, ta bitartean iño!»

Miren, iñori ezer esan gabe, arratsalde artan bertan etxetik aterata, emendik ara erriyan ibilli zan: etxera biurtu zanean, buruko miñez zegola esanez eta bakarrik egon nai zulakoan, oyeratu zan; bañan urrengo goizeko bederatzieta senarrarekiñ itze-gin nai zula adirazita.

Goizean goiz jekita atze-gin zebillen Pello, Jaunak egun ayetan bezela luzaro laguntzen baziyon, laster Polliri zorra kitatuko ziyola us-tez: ¿ze zorion maitagarriya Pellok egun artan zeukana! iñil-iñillik ta emaztea asarretu gabe zorrak kendu, Prašku giñaiñoaren oroimena garbi ta erru gabe euki, eta bere emazte alaben izena kutsutu gabe, ala gauzak iraneuz, gordeko zitun; da biyotza garbi, men, zuzen eta

lan egiteko zeuzkan osasun da asmo biziz..... ¡zenbat paketsu ta zintzo irabaziko zun gero!

¡Jaunak laguntzen dit, nik eta Apaiz Jaunak uste gendun baño erreñago! ¡onetsiya izan bedi betiko gure Jaungoiko maitea!

Ontan alai zegon alik eta bederatzia iristen-t-ziran arte; ayek jotzerako bere emaztearengana jua-t-zan Pello, ze naiko ote zun arrek, jakitera.

Miren jantzi ta eserita zegon; bañan makal da txuri-txuri, aserre bezela, begiak barrendu ta negartiak, ezpañak dardarrez goraberaka zerabiltzkila.

Arri ta larri Pello, bere emaztea gaiño egongo zala ustez, arren-gana maitetsu jua da lastandu nayez, ondoratu zitzayon..... ¡Giñai-ñoa, obe ori egin ez bazun!

Su ta gar egiña altxa zitzayon Miren: bere senarrari ekiten-t-ziyola ta arren agurrari erantzun gabe, gogor da gorrotoz betea asi zan esanez:

—¿Noiztik zu ain maitetsu? beartsutzat utzi ta il nai izan nazu-netik?

Tximist bat oinpean agertu balitzayon ere etzan Pello ainbeste arrituta begi zabal jarriko.

—Bañan, Miren, zu txoratuta zaude: noiz il nai izan-t-zaitut? ¿enaiz amalau urte oyetan zu ta alabengatik lanean ari, ta al nun guz-tiya zuentzat irabaziyaz ibilli? ¿zer esan dezu?

—¿Zer esan dedan? Egiya, zuk nai izan dezuna.

—Eseri zaitez, Miren; gaiso bazaude, etziñ; orain daukazun zora-keriya juaten-t-zaizunean, zintzogo itzegingo didazu.

—Enago gaiso, ez: zer esaten dizudan ondo dakit; eta ni ta nere alabatxo maiteak galdu nai ditun bat ezagutzen eta emen, nere aurrean, ikusten dedala berriz esango dizut.

—Miren, Miren..... nere emaztea, nere alaben ama ez baziña.....

—¿Zer egingo zidazuke, jo, ill?

—Ez dezala nere Jaungoikoak, nik emakume bat, gaiztoa ta bi-yotz gabea izan arren, jo ta iltzea nai; bañan emen bertan txoro ta gaitzkille bat bezela itxita, beñere ez ateratzeko eran utziko zi-ñuket.

—¡Ori ni gaiztoa banitz, egineo lidake Pello zintzoak! eta zer egin bear niyoke nik ere etxean bertan lapurtzen dabillen bati?

—Begira, Miren; etzaidazu odola irakiñazi: esan, esan ezaidazu

lenbizi zergatik onela itzegiten didazun: bestela asarrez itxutu, txoratu niteke eta zer egin nezaken ez dakit.

(Au esanez aurreratu eta Miren eskubiko besotik gogor eutsiyaz berriz eragin-t-ziyon):

—Esaidazu garbi ta zintzo: ¿zer esan nai dezu? ¿zertarako, zergatik deitu didazu?

Etzeukan Mirenek biyotza lasai: etzekin zenbaiteraño Pello asarretu ziteken, eta erreš purrukatu-ta gelditu zeikela bazekin, eta pizkabatean dardaralta egon-t-zan.

Pello itxoitez aspertu zitzaion, eta besoa estutu eta bereganduaz berriz esan-t-ziyon:

—Itzezin nai dezu? ¿bai edo ez?

—Uzten banazu, bai; bestela, ez.

—Eseri ta itzezin zadazu berealasen, da garbi.

¿Zenbategian saldu ziyozun Juani etxea?

Arrentzat eun da amar milla peson, eta guretzat irurogeita amar millan.

—Ta zertarako dauzkazu aste ontan gorde dituzun iru milla peso oyek?

—Zure aitaren da zure lapurretak ordaintzeko; nere alaben izena garbi ta errugabe gordetzeagatik; lapur baten sui ta beste baten senar izan naizela iñork jakin ez dezan; orregatik Polliri, zure aitak eriyotzako orduan agindu zidanez, ogeita amabost milla eman nizkiyon eta beste iru milla oyek, eta beste zor zaizkiyon ogei ta amairu ere, eman-go dizkiyot, bai: orain badakizu zein diran etxe ontako lapurrak, zeñek zuen doaitzat gauzak zuzendu nai ditun eta zerutik begiraka daukagun Jaunak zer nai dun. ¿Geyago jakin nai zenduke?

—Eta Polli deritzan arrote orren kondaira gezurra balitz?

—Ez da eriyotzako orduan gezurrik esaten: zure aitak egiya esan-t-zidan; Pollik ere bai; eta etzaitut, zeran bezela, gezurtizat euki nai nik.

—Nik, bada, gezurra dala esan, da esango det: ez didazu olako gauzik dakarren paperik erakutsiko: eta ludi ontan paperak bear dira, itzak ez.

—Gizon leyal da euskaldunen artean itzak naikoak dirala badakizu: kristotar zintzoen artean ere bai; zuk paperen bearra badaukazu, gaiztoa, zorigaiztokoa zerala adirazten dezu.

¿Ez dizu zure aitaren doaitasunak ajolik ematen? ¿lapurretan ibi-

llyak zeratela erri guztiyan esanez ni zuregandik alderatu ta juatea naiko zenduke? zure alabak, beñere maite izar, badituzu, lapurren alabak dirala esatea naiko dezu?

—Nik ere, olako gauzik nai ez dedalako, zeñek, noiz da nola gezurrak sinistuaz, nere kaltean ainbeste diru ostu didan jakin nai izan det; zu zerala erabakilleari esan diyot, eta arrekin konpon.

Au esaten ari zan bitartean altxa ta atera zan Miren: atzetik Pello juan nai zitzayon; bañan ezifnik arkitu zan: biyotza zalapartan, anakak motel ta burua nastu, ta erdi itoaz, zegon alkiyan erori zan..... ¡Ene Jainkoa! zotinka esanez: ¡Gišaišoa!

(Jarraituko da.)
